

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NEGOZIOEN KUDEAKETARENTZAKO ZUZENBIDERAKO SARRERA

Egilea

García Lupiola, Asier

**EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko
Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Aurkezpena

Ikasmaterial hau Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkano Ataleko ikasle euskaldunengan pentsatuz egin da. Hain zuzen ere, Negozioen Kudeaketako Graduko lehen mailako Zuzenbiderako Sarrera eta Ondasun Zuzenbide Pribatua irakasgaiarentzako euskarazko ikasmaterial gisa garatu da, eta irakasgaien landu behar diren eduki teorikoen oinarriak jasotzen ditu.

Hala ere, unibertsitate-gradu askotako irakasgaietan beharrezkoa da Zuzenbidearen ikuspegi orokor bat, bereziki gizarte-zientzietako graduetan. Horietan, mesedegarria izan daiteke ondasun-zuzenbidearen gaineko azterketa ere. Kasu horietan guztietan ikasmaterial hau Zuzenbiderako sarrera gisa erabil daiteke, eta, nahi izanez gero, garatu nahi diren gaiak eskuliburu erabilgarrienekin osatu daitezke.

Hori da, hain zuzen ere, testu honen helburua: Zuzenbidearen arlo orokorren hasierako azterketa eskaintzea, baita Ondasun Zuzenbidearena ere.

Lehenengo esparruari begira, lehenik eta behin, Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren ikuspegi orokorra aurkezten da. Bigarrenik, Zuzenbidearen testuingurua eta iturburuak aztertzen dira. Ondoren, Zuzenbidearen subjektuak eta eskubide subjektiboak. Bigarren esparrua, ekonomia eta enpresa arloko ikasleentzat bereziki, etorkizunean Merkataritza Zuzenbidea ikasteko oinarria da. Horrela, jasotzen den azterketa ondare eta eskubide errealekin hasten da, betebeharrekin eta negozio juridikoarekin jarraituz, eta, azkenik, kontratuaren arauketa orokorra aztertzen da, baita kontratu mota ezberdinena ere.

Ikasmateriala egiteko funtsezko oinarri juridiko gisa Konstituzioa eta Kode Zibila hartu dira, azken horrek 2023. urtera arte izan dituen eguneratzeak barne.

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| I. gaia. ZUZENBIDEA: IKUSPEGI OROKORRA..... | 4 |
| 1. Zuzenbidea: kontzeptua eta edukia | |
| 2. Zuzenbidearen zatiketak | |
| 3. Zuzenbide Publikoa eta Zuzenbide Pribatua | |
| 4. Zuzenbidea eta ekintza ekonomikoa | |
| II. gaia. ZUZENBIDE ZIBILA..... | 10 |
| 1. Zuzenbide Zibila: kontzeptua | |
| 2. Espainian dauden erregimen zibil ezberdinak | |
| 3. Kode Zibila | |
| 4. Foru Zuzenbideen konpilazioak | |
| 5. Foru Zuzenbideen egoera Konstituzioan | |
| III. gaia. ZUZENBIDE-ESTATUA ETA BOTERE-BANAKETA..... | 15 |
| 1. Zuzenbide-estatua | |
| 2. Gobernu era eta botere-banaketa | |
| 3. Estatuaren lurralde-antolaketa | |
| IV. gaia. ZUZENBIDEAREN ITURRIAK..... | 22 |
| 1. Kontzeptua | |
| 2. Hierarkia | |
| 3. Legea | |
| 4. Ohitura | |
| 5. Zuzenbidearen printzipio orokorrak | |
| V. gaia. ZUZENBIDEAREN SUBJEKTUAK..... | 29 |
| VI. gaia. PERTSONA FISIKOA..... | 30 |
| 1. Jaiotza. Jaio ez denaren babes | |
| 2. Pertsonaren bukaera | |
| 3. Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna | |
| 4. Naziotasuna eta auzotasuna | |
| VII. gaia. PERTSONA JURIDIKOA..... | 38 |
| 1. Kontzeptua | |
| 2. Pertsona juridiko motak | |
| VIII. gaia. ESKUBIDE SUBJEKTIBOAK..... | 42 |
| 1. Kontzeptua | |
| 2. Eraketa-elementuak | |
| 3. Eskubide subjektiboak lortzea eta galtzea | |
| 4. Eskubide subjektibo motak | |
| 5. Pertsonalitatearen eskubideak / Giza eskubideak | |

| | |
|--|----|
| IX. gaia. ONDAREA. ONDASUNAK ETA GAUZAK..... | 49 |
| 1. Ondarea: kontzeptua | |
| 2. Ondarearen funtzioak | |
| 3. Ondare motak | |
| 4. Ondasunak eta gauzak | |
| 5. Eskubide errealak | |
| X. gaia. BETEBEHARRAK..... | 57 |
| 1. Betebeharren kontzeptua | |
| 2. Betebeharren iturriak | |
| 3. Betebeharren subjektuak | |
| 4. Betebeharren objektua: prestazioa | |
| 5. Betebehar motak | |
| 6. Betebeharrak betetzea | |
| 7. Betebeharra ez betetzea | |
| XI. gaia. NEGOZIO JURIDIKOA..... | 63 |
| 1. Kontzeptua eta ezaugarriak | |
| 2. Negozio juridiko motak | |
| 3. Negozioaren nahitaezko elementuak | |
| XII. gaia. KONTRATUA: ARAUKETA OROKORRA..... | 67 |
| 1. Kontratua: kontzeptua | |
| 2. Kontratu motak | |
| 3. Kontratuaren oinarritzko osagaiak | |
| 4. Kontratuaren osagaiek izan ditzaketan akatsak | |
| 5. Kontratuaren eraketa | |
| 6. Kontratuaren eraginkortasuna | |
| 7. Kontratuaren eragingabetasuna | |
| XIII. gaia. KONTRATU MOTEN IKUSPEGI OROKORRA..... | 77 |
| 1. Salerosketa | |
| 2. Trukea | |
| 3. Dohaintza | |
| 4. Akura/Alokairua/Errentamendua | |
| 5. Obra- eta zerbitzu-kontratuak | |
| 6. Mandatua | |
| 7. Sozietate-kontratua | |
| 8. Mailegua | |
| 9. Gordailua | |
| 10. Fidantza | |
| Eranskina: Oinarritzko legedia eta kontsultarako materialak..... | 90 |

I. gaia. ZUZENBIDEA: IKUSPEGI OROKORRA

1. ZUZENBIDEA: KONTZEPTUA ETA EDUKIA

Gizarteak zuzenbidea eskatzen du: zuzenbidea gizartearen kontu bat da, hau da, elkarrekin harremanetan dagoen gizaki multzo baten kontua.

Munduan pertsona bakarra balego, edo gutxi batzuk baina elkarren artean isolaturik eta haien arteko harremanak ezinezkoak izanik, zuzenbiderik ez legoke. Gizakien elkarbizitzak derrigorrez dakar zuzenbidea.

Gizartean elkarrekin bizitzea posible da, baldin eta gizaki bakoitzaren eremua eta gainerakoen eremua ondo bereizirik badaude; hau da, eremu horien arteko mugak ondo finkatuta egon behar dira. Gizaki bakoitzak zer egin dezakeen eta zer ezin duen egin jakin behar du, zer errespetatu behar duen, azken batean.

Elkarrekin bizitzea posible izan dadin, jokabide-arauen sistema bat behar da. Arau horiek eremu politiko batean eratzen badira, horretarako norbaitek aginpidea duelarik (Gobernuak, legebiltzarrak, auzitegiek), arau juridikoak dira. Arau juridikoen multzoa Zuzenbidea da.

Arau juridikoak EZ dira:

- Lege fisikoak: lege fisiko batek adierazten duena beti bete behar da lege horrek balioa izateko; adibidez, grabitatearen erakarpina jasaten duen gorputzik ez balego, ez litzateke egongo grabitate-legerik. Ordea, kontratu bat betetzen ez bada, kontratua arautzen duen legeak baliozkoa izaten jarraitzen du.
- Lege moralak: pertsonaren kontzientziara zuzentzen dira eta etikaren arloan soilik dira baliozkoak (adibidez, erlijio-arauak). Hala ere, Zuzenbideak lege moral ugari bereganatu ditu (hiltzeko debekua, lapurtzeko debekua, besteei kalterik ez egitea, eta abar).
- Gizarte-arau hutsak: ohiturak, usadioak edota portaerak ez betetzeak gizarte-isuna ekar dezake, baina ez isun juridikorik. Enpresa-bazkari batean plateretik zopa zurrupatzeak jangelatik kaleratua izatea ekar dezake, baina ez da inongo arau juridikorik hautsi.

Hori guztia jakinda, nola definitu Zuzenbidea? Zuzenbidea da gizartean elkarbizitza armonikoa lortzeko helburua duen arau multzoa.

Hala ere, Zuzenbidea ez da soilik arau multzo bat; bai, ordea, gizartean indarrean dauden baloreetan oinarritzen den arau multzoa. Adibidez, Espainiako Konstituzioaren 1.1 artikulua:

«Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batean eratzen da, eta bere ordenamendu juridikoaren balore nagusiak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa dira».

Beraz, definizio osoa hauxe litzateke: Zuzenbidea da gizartean elkarbizitza armonikoa lortzeko helburua duen eta gizartean indarrean dauden baloreetan oinarritzen den arau multzoa.

Zuzenbidea (*derecho objetivo*) eta eskubidea (*derecho subjetivo*) ez dira gauza bera:

- Zuzenbidea herrialde bakoitzean indarrean dagoen arau-juridiko multzoa da. Adibidez, jabetza-zuzenbidea gauzen gaineko jabetza arautzen duen arau multzoa da.
- Eskubideak pertsonak dituzten ahalmen juridikoak dira. Adibidez, jabetza-eskubidea gizabanakoak duen gauzen gaineko jabetza izateko eskubidea da (gauza baten jabe izateko ahalmena).

Arau juridikoa komunitatearen elkarbizitza ordenatzea helburu duen arau orokorra da, eta arauan jasotakoa derrigorrez bete behar da (behintzat, bertan jasotakoa ez da hautsi behar). Arau juridikoaren kontra jokatzek edo araua ez betetzeak kalte bat ekarriko du araua bete ez duenarentzat (zigorra, isuna, kalte-ordainketa, eta abar). Agintaritzak arau juridikoa modu koaktiboan ezar dezake.

Arau juridikoaren ezaugarriak:

- Orokortasuna: herritar guztiak legearen aurrean berdinak direnez, araua pertsona guztiei zuzentzen zaie (edo egoera zehatz batean dauden guztiei, arauak egoera hori arautzen badu).
- Abstrakzioa: arauak ezin ditu egoera zehatz guztiak arautu; horregatik, era orokor batean ematen da, eta gero bizitzaren egoera bakoitzera moldatu behar da arau hori.

- Aldebikotasuna: orokorrean, arau juridikoak pertsona baten aldeko eskubidea eta beste batentzako betebeharra ekartzen ditu.
- Derrigorotasuna: agintaritzaren organoek araua betearaz dezakete; hau da, araua bete nahi ez dutenei indarrez betearaz dakieke.

2. ZUZENBIDEAREN ZATIKETAK, ARAU MOTEN ARABERA

2.1. Derrigorrezko Zuzenbidea eta Borondatezko Zuzenbidea

Derrigorrezko Zuzenbidezko arauak portaera bat (aktiboa edo pasiboa) ezartzen dute, guztiek bete beharrekoa (zergak ordaintzea).

Borondatezko Zuzenbidearen arauak betetzea hautazkoa da (baina ezin da araua hautsi); adibidez, kontratuen arauketa.

2.2. Zuzenbide Normala eta Salbuespenezko Zuzenbidea

Zuzenbide Normaleko arauak ordenamendu juridikoaren oinarritzko printzipioen garapena dira.

Salbuespenezko Zuzenbidearen arauak egoera berezietan ematen dira, eta ordenamendu juridikoaren oinarritzko printzipio horiek hausten dituzte.

2.3. Zuzenbide arrunta eta Zuzenbide berezia

Zuzenbide arrunteko arauak gizartea bere osotasunean arautzen dute.

Zuzenbide bereziko arauak gai zehatzak edo harreman zehatzak arautzen dituzte.

2.4. Zuzenbide orokorra eta Zuzenbide partikularra

Zuzenbide orokorreko arauak herrialde baten lurralde osoan aplikatzen dira.

Zuzenbide partikularreko arauak herrialde baten lurralde zehatz batzuetan aplikatzen dira, hain zuzen, berezko arautegia dutenetan (adibidez, Foru Zuzenbidea).

3. ZUZENBIDE PUBLIKOA ETA ZUZENBIDE PRIBATUA

Zuzenbide Publikoak estatuak eta agintea duten beste erakundeek edo entitateek pertsonekin edo haien artean dituzten harremanak arautzen ditu.

Zuzenbide Privatuak norbanakoen/pertsonen arteko harremanak arautzen ditu.

Bien arteko ezberdintasuna hauxe da: Zuzenbide Publikoak mendekotasun-harremanak arautzen ditu, hau da, aldeetako bat aginpidea egikaritzuz agertzen den entitate publikoa den kasuak. Beraz:

- Harremanaren bi aldeak norbanakoak direnean, Zuzenbide Privatuak arautuko du harreman hori.
- Aldeetako bat entitate publikoa bada, dagokion aginpidea erabiliz, Zuzenbide Publikoak arautuko du harreman hori (adibidez, udalak desjabetze bat egiten duenean).
- Aldeetako bat entitate publiko bat bada, ordea, baina norbanako bezala jokatuz (aginpidea erabili barik), Zuzenbide Privatuak arautuko du harreman hori (adibidez, udalak banketxeari mailegu bat eskatzen dionean).

3.1. Zuzenbide Publikoaren adarrak

a) Konstituzio Zuzenbidea (Zuzenbide Politikoa):

Estatu baten oinarrizko legeak, Konstituzioan jasotakoak, aztertu eta aztertzeaz arduratzen da. Horrez gain, estatuaren, gobernuaren, oinarrizko eskubideen eta botere publikoen eta herritarren arteko erregulazioarekin zerikusia duen guztia arautzen du.

b) Administrazio Zuzenbidea:

Administrazio Publikoaren funtzionamendua, eskumenak eta antolamendua arautzen ditu, eraginkortasunez funtziona dezan. Horrez gain, Administrazioaren eta beste alde batzuen artean ezartzen diren harreman juridikoak arautzen ditu (enpresak, herritarrak edo beste erakundeak).

d) Zuzenbide Prozesala:

Prozedura judizial batean gauzatzen diren ekintza eta harreman guztiak arautzen ditu, planteatutako gatazka konpontzeko, betiere baieztatutako eta frogatutako egitateetan oinarrituta.

e) Zerga Zuzenbidea:

Zergen arauketa eta ezarpena dagokio.

f) Zigor Zuzenbidea (Zuzenbide Penala):

Delitu bat dela medio beste pertsona batzuk kaltetu dituzten pertsona guztientzat zigorrak ezartzearen arauketaz arduratzen da. Zigor horiek delituaren larritasunaren arabera dira, eta dagokion epaileak berretsitako epaiketa penalaren bidez aplikatzen dira.

g) Nazioarteko Zuzenbide Publikoa:

Herrialdeen arteko harremanak arautzen ditu, baita nazioarteko erakundeak ere. Nazioarteko lankidetzaren garatzea bultzatzen du, gatazkek saihesteko helburuarekin.

3.2. Zuzenbide Pribatuaren adarrak

a) Zuzenbide Zibila:

Zuzenbide Pribatuaren adarrik nabarmenena da. Pertsonekin, haien harreman pertsonalekin eta ondasunekin, kontratuekin eta erantzukizunekin zerikusia duten jardura edo alderdi zibil guztiak arautzen ditu.

b) Merkataritza Zuzenbidea:

Merkataritza-egintzak eta harremanak arautzen ditu. Enpresarekin zerikusia duten alderdi juridiko guztiak arautzen ditu, hala nola kontratuak prestatzea eta bere barne-antolaketa.

d) Nazioarteko Zuzenbide Pribatua:

Nazionalitate ezberdinetako herritarren harreman pribatuak arautzen ditu. Bereziki, kasu bakoitzean zein herrialdetako lege aplikatu behar den zehazten du.

e) Lan Zuzenbidea:

Berez, zuzenbide mistoa da. Enpresarien eta langileen arteko harreman guztiak arautzen dituen Lan Zuzenbidearen zatia Zuzenbide Pribatua da (langileen estatutua). Administrazioak ezarritakoak ordea, hala nola, Gizarte Segurantzaren arauketa, Zuzenbide Publikoa dira.

4. ZUZENBIDEA ETA EKINTZA EKONOMIKOA

Zuzenbideak, logikoa denez, eragin zuzena eta zabala du ekintza ekonomikoan, hura ere arautzen baitu.

Alde horretatik, garrantzi handiena duen Zuzenbidearen zatia Ondare Zuzenbide Zibila da, honako hauek arautzen baititu:

- Ondasunen jabetza eta edukitza: eskubide errealak.
- Ondasunen eta zerbitzuen igorpena: betebeharrak eta kontratuak.
- Ondasunen igorpena pertsonaren heriotzaren ondoren: oinordekotza.

Espainiako Konstituzioak ekintza ekonomikoaren inguruan jasotzen dituen oinarrizko printzipioak honako hauek dira:

- 9.2. artikulua: botere publikoek norbanakoen parte-hartzea erraztu behar dute (oztopoak galaraziz) bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean.
- 33. artikulua: jabetza pribatuaren eskubidea aitortzen da.
- 38. artikulua: enpresa-askatasuna, merkatu-ekonomiaren esparruan, aitortzen da.
- 128. artikulua: estatuaren aberastasun osoa interes orokorraren menpe dago; edozein botere ekonomikorik, pribatuak ala publikoak, interes orokorra errespetatu behar du.

II. gaia. ZUZENBIDE ZIBILA

1. ZUZENBIDE ZIBILA: KONTZEPTUA

Zuzenbide Zibila zuzenbide pribatu orokorra da, hau da, Zuzenbide Pribatuaren adar bereziek (Merkataritza Zuzenbidea, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua, Lan Zuzenbidea) berenganatu ez dutena arautzen du. Alde horretatik, ordenamendu juridiko baten menpe dauden pertsona guztiei aplikatzen zaie, ez soilik batzuei (merkatariari, kirolariari, medikuei...).

Zuzenbide Zibilak gizakiarengandik gertuen dauden ordenamendu juridiko pribatuaren gaiak arautzen ditu, hain zuzen, pertsonaren eguneroko bizitzan etengabe eta sendo zeresana duten eremuak:

- Arlo pertsonalari dagozkionak: jaiotza, adina, nortasunari dagozkion eskubideak, eskubideak gauzatzeko eta besteekin harremanetan jartzeko gaitasuna, naziotasuna...
- Familiaren barneko harremanak eta egoerak: adopzioa, ezkontza, izatezko bikoteak, seme-alabatasuna, dibortzioa, guraso-boterea, tutoretza...
- Pertsona ondare baten subjektu izateari dagozkionak: gauzen eta eskubideen gozamina eta eskurapena (kontratuak, eskubideak eta betebeharrak, eskubide errealak), gauza bera pertsonaren heriotzaren ondoren (oinordetza), erantzukizun zibila...

2. ESPAINIAN DAUDEN ERREGIMEN ZIBIL EZBERDINAK

Erromak Iberiar penintsula menperatu zuenean, bere Zuzenbide Zibila orokortu zuen (Zuzenbide Erromatarra). Erromako inperioa desagiterakoan, herri barbaroek Europako lurraldeak inbaditu zituzten, eta Iberiar penintsula bisigodoen esku gelditu zen VIII. mendera arte; bisigodoek Zuzenbide Germaniarra ekarri zuten.

Erdi Aroan, erresuma kristau ezberdinak sortu ziren, eta bakoitzak bere Zuzenbide Zibila eratu zuen. Aurretik, musulmanek berenganatutako lurraldeak konkistatu zituzten; ondorioz, erresuma horiek handituz joan ziren, eta bakoitzak bere ordenamendu juridikoa ezarri zuen.

Horietaz gain, zenbait lurraldek zaharragoak ziren ohituretan eta usadioetan oinarritutako berezko zuzenbidea zuten; hala nola, euskal lurralde historikoek euskal foruak zituzten.

XVIII. mendera arte Espainian ez zegoen inongo batasun juridiko nazionalik. Estatua, berez, erresuma ezberdinez osatzen zen (Gaztela, Aragoi, Nafarroa) eta juridikoki erdi-askeak ziren entitateak zeuden (lurralde foralak).

Borboiak korora heldu zirenean, batasun nazionala lortzea zuten helburu, eta horretarako funtsezkoa zuten batasun juridikoa lortzea. 1707an Filipe V.a «Oin Berriko Dekretua» araudiaren bitartez Gaztelako Zuzenbidea estatu osoan orokortzen saiatu zen. Horrela, Valentziako Zuzenbidea izan ezik (indargabetu egin zuen), beste Zuzenbide Foralak mantendu egin ziren (Aragoi, Katalunia, Balearrak, Galizia, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Aiara), baina Zuzenbidea gaurkotu ahal izateko erakunde barik.

XIX. mendean zehar foruak indargabetzeko saiakera ezberdinak egin ziren. Foruak albo batera uztearen edo mantentzearen eztabaida izan zen gertatutako hiru gerra zibilen oinarritzko argudioetako bat (Karlistadak).

3. KODE ZIBILA

Kodea arau-sistema bat da, non arauak elkarren menpean eta elkar loturik baitaude. Kodeak orokortasunerako eta osotasunerako joera du, eta orain eta aurrerantzean egon daitezkeen auzi guztiak erabakitzeke gai izango da.

Espainiako Kode Zibilaren lehen proiektua 1812koa da, Frantziako 1804ko Kode Zibilean oinarritutakoa. Aurreko iturri zaharrak ordezkatu nahi zituen, eta bere helburua Zuzenbide Zibila eta Zigor Zuzenbidea arautzea zen, Foru Zuzenbideak alboratuz. Bigarren proiektua 1851koa da, jadanik Zuzenbide Zibila bakarrik arautuko zuena, baina Foru Zuzenbideak alboratuz.

Gerra Karlistak (1833-1878) bukatu eta gero, 1880an Espainiako Gobernuak eta Gorteek Kode Zibil berria egiteko beharra adierazi zuten. Oraingoan, Foru Zuzenbideak mantendu egin ziren, eta Kode Zibila estatuaren lurralde guztietan aplikatu behar bazen ere, foru-lurraldeetan ordezkoko zuzenbide gisa izango zen. Foru Zuzenbideak, ordea, oso zaharkiturik zeuden, eta ez zegoen horiek eguneratzeko asmorik; beraz, kasu gehienetan zuzenbide

aplikagarria Kode Zibil berriak jasotakoa izango zen, baita foru-lurraldeetan ere. Kode Zibila 1889ko uztailaren 27an sartu zen indarrean.

Kode Zibilaren eraldaketa garrantzitsuenak:

- 1958: ezkontza eta erregimen ekonomikoa aldatu ziren.
- 1975: ezkontutako emakumearen obediencia-beharra eta senarraren baimena desagertu ziren.
- 1981: ezkontzaren izaera zibila eta dibortzioa onartu ziren; ezkontza barruko eta kanpoko seme-alaben parekotasuna onartu zen.
- 1990: sexu-arrazoiagatiko diskriminazioak desagertu ziren.
- 2005: sexu bereko pertsonen arteko ezkontza- eta adopzio-eskubidea.
- 2015: haurren eta nerabeen defentsa-sistema aldatu zen.
- 2023: desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriak.

Kode Zibilak duen araudiak Espainiako Zuzenbide Orokorra osatzen du. Kode Zibilak lehenengo atalean aipatutako gaiak arautzen ditu; hala ere, horien arauketa zehatza ezartzeaz gain, bere xedapenak ordezkoko gisa aplikatuko dira beste legeek arautzen dituzten gaietan (KZ 4.3. artikulua). Beraz, gai zehatz baten inguruan aplikagarria den arauketa badago (Merkataritza Kodean jasotakoa, adibidez), hori aplikatuko da, baina ezinezkoa bada edo ez balego, Kode Zibilak jasotakoa jarraitu beharko da.

4. FORU ZUZENBIDEEN KONPILAZIOAK

Kode Zibila indarrean sartu zenean, 1889an Foru Zuzenbideek indarrean jarraituko zutela adierazi zen. Foru Zuzenbideen egoera, ordea, oso larria zen:

- Foru Zuzenbideak oso zaharkiturik zeuden (Nafarroako Foru Zaharra 1238koa da, Bizkaikoa 1452koa, Gipuzkoako forua ez zegoen idatzita).
- Teknikoki aztertuta, akats eta hutsune ugari zituzten.
- XIX. mende bukaerako juristek ez zuten aspaldiko hizkuntza eta terminologian idatzitako testuak interpretatzeko ezagutzarik.

Foru Zuzenbideek jasotzen zuten edukia eguneratzeko erakunderik ez zen eratu (asmoa, berez, foru-zuzenbideak «hiltzen» uztea zen). Beharrezkoa zen, ordea, ordenamendu horiek ulergarria izango zen hizkuntzan eta teknikan adieraztea; horretarako, kode gisa antolatu ziren, eta XX. mendean zehar foru-konpilazioak egin ziren:

- 1959an Bizkaiko Forua eta Arabako Forua
- 1960an Kataluniako Forua
- 1961ean Balearetako Forua
- 1963an Galiziako Forua
- 1967an Aragoiko Forua
- 1973an Nafarroako Forua

5. FORU ZUZENBIDEEN EGOERA KONSTITUZIOAN

Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak.

Konstituzioaren arabera, Zuzenbide Zibila estatuaren eskumen eskusiboa da. Hala ere, Konstituzioak errespetatzen du erkidego autonomoek, Foru Zuzenbideak dauden tokietan, horiek gorde, aldatu eta garatzeko duten ahalmena (Konst. 149.8. artikulua).

Gai honi dagokionez, estatuak arlo hauetan du eskumena:

- Arau juridikoen aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko erregelak.
- Ezkontzari buruzko harreman juridiko-zibilak.
- Erregistroen eraketa.
- Zuzenbidearen iturrien zehaztapena.

Beraz, gai horietatik kanpo, Foru Zuzenbidea dagoen lurraldeetan, dagokion erkidego autonomoak du zuzenbide hori garatzeko ahalmena.

Goian aipatutako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak honako hau ere adierazten du: Foru Zuzenbideen eguneratze orokorra Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo da.

Euskadiko Erkidego Autonomoaren kasuan, uztailaren 1eko 3/1992 Legearen, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoaren, bitartez, honako foru hauek berrikusi ziren:

- Bizkaiko Forua. Bizkai osoan aplikatzen zen, Bilbo hirian eta honako udalerrri hauen lurralde ez-aforatuetan izan ezik: Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugaleta, Plentzia eta Urduña.

- Arabako Forua. Aiarako Forua Aiaran, Amurrion, Artzeniegan eta Okondon aplikatzen zen. Laudion eta Aramaion, berriz, Bizkaiko Forua.
- Gipuzkoako Forua. Arauketa txikia bazuen ere (baserriaren ingurukoa bereziki), Gipuzkoa osoan aplikatzen zen.
- Lurralde ez-aforatuetan Kode Zibilaren arauketa aplikatzen zen soilik.

Foru Zuzenbidearen arauketa berria eta bateratua egin zen ekainaren 25eko 5/2015 Legearen bitartez (ekainaren 25ekoa), Euskadiko Zuzenbide Zibilari buruzkoa:

- Lege berriak aurreko Foru Zuzenbidean oinarritutako berezko Zuzenbide Zibila arautzen du Euskadiko Erkidego Autonomoko lurralde osoarentzat.
- Lege honek Euskadiko auzotasun zibila eratzen du; beraz, Euskadiko Zuzenbide Zibila aplikagarri zaie Erkidego Autonomoa osatzen duten hiru lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) biztanle guztiei.
- Kode Zibila (Zuzenbide Zibil Orokorra) zuzenbide osagarri izatera pasatzen da hiru lurraldeetan.

Nafarroako Foru Erkidegoaren kasuan, 13/1982 Legeak, Nafarroako Foru Hobekuntzarenak, autonomia-estatutua izateaz gain, Foru Zuzenbideari buruzko arauketa ere badu. Hala ere, 1987an bilduma pribatua egin zen.

Nafarroako Foruaren 1973ko konpilazioa Nafarroako Foru Erkidegoaren parlamentuaren 21/2019 Legeak eguneratu zuen.

III. gaia. ZUZENBIDE-ESTATUA ETA BOTERE-BANAKETA

1. ZUZENBIDE-ESTATUA

Espainiako Konstituzioaren 1.1. artikulua: «Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batean eratzen da, eta bere ordenamendu juridikoaren balore nagusiak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa dira».

Zuzenbide-estatuan boterea edo agintea herriaren ordezkariak egindako legepean dago, eta legeak berak errespetatzen ditu herritarren eta gizakien eskubideak eta askatasunak:

- Zuzenbide-estatuan boterea legearen menpean dago, eta legearen gainetik eta aurretik gizakia.
- Horregatik, zuzenbide-estatuan gizaki guztien askatasunak eta eskubideak babesten dira: estatuko nazionalitatea dutenen kasuan, herritarrak, estatu horren ordenamendu juridikotik eratorritako eskubide eta askatasunak; beste gizakien kasuan, oinarrizko eskubide eta askatasunak (Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotakoak).

Zuzenbide-estatuan Konstituzioa lege gorena da, eta bertan jasotzen da herritarren eskubideen zerrenda, balio politiko zehatza dutenak eta baita eguneroko bizimoduari buruzkoak ere.

Espainiako Konstituzioaren kasuan, honako hauek ditugu:

- Konst. 10.1. artikulua: ordena politikoaren eta gizarteko bakearen oinarri dira pertsonaren duintasuna, pertsonaren eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen librea, legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua.
- Konst. 10.2. artikulua: Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzeko orduan, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.
- Konst. 14. artikulua: espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; ez da onartzen inolako diskriminaziorik jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein arrazoi pertsonal edo sozial dela eta.

- Konst. 15. artikulua: denek dute bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta ezin da torturatu, ezta tratu iraingarri eta gizagaberik aurrera eraman ere.
- Konst. 16. artikulua: askatasun ideologikoa eta erlijiosoa bermatzen da.
- Konst. 17. artikulua: atxiloketa ilegala debekatzen da.
- Konst. 19. artikulua: bizilekua finkatzeko askatasuna eta estatuko lurraldean zehar mugitzeko askatasuna aitortzen dira, baita estatutik irten eta estatura sartzeko eskubidea ere.
- Konst. 20. artikulua: adierazpen-askatasuna.
- Konst. 21. artikulua: batzartzeko askatasuna.
- Konst. 22. artikulua: elkartzeko eskubidea (elkarteak sortzeko eskubidea).
- Konst. 27. artikulua: hezkuntzarako eskubidea.
- Konst. 35. artikulua: lanerako eskubidea, soldatan sexu-arrazoiagatik diskriminazioa debekatuz.
- Konst. 43. artikulua: osasunaren babeserako eskubidea.
- Konst. 47. artikulua: etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea.

2. GOBERNU ERA ETA BOTERE-BANAKETA

Espainiako Konstituzioaren 1.2. artikulua: «Subiranotasun nazionala Espainiako herriari dagokio, eta harengandik datozkio estatuari botereak».

Espainiako Konstituzioaren 1.3. artikulua: «Espainiako estatuaren forma politikoa monarkia parlamentarioa da».

Zuzenbide-estatuak Montesquieuk 1748an adierazitako botere-banaketaren teorian oinarritzen dira. Montesquieuren esanetan, boterea pertsona bakar baten eskuetan (erregea) edo talde murriztu baten eskuetan (erregea eta bere aholkulariak) gelditzen denean, botere hori gehiegikeriaz eta neurrigabekeriak erabiltzen da. Hori ekiditeko, boterea talde ezberdinen artean banatzea proposatu zuen:

- Gorteei legeak egitea dagokie.
- Erregeari gerra eta bakea, segurtasuna eta beste estatuetik harremanak.
- Epaleei norbanakoen arteko arazoak konpontzea.

Botere-banaketaren teoria klasiko horrek gaur egun adierazten duena da estatuaren botereak hiru direla:

- Botere Legegilea: alde batetik, maila goreneko araudiak prestatzea dagokio, eta, bestetik, exekutiboa kontrolatzea; herri-subiranotasunaren ordezkari den parlamentuaren esku dago.
- Botere Exekutiboa/Eragilea: estatuaren administrazioaz arduratzen da, eta gobernuaren esku dago.
- Botere Judiziala: arau juridikoak interpretatzeaz eta sor daitezkeen gatazkak ebazteaz arduratzen da; Justizia Administrazioaren esku dago.

Espainiako estatuaren forma monarkia parlamentarioa izanik, hiru botere horiez gain, laugarren erakunde nagusi bat dago (baina ez da boterea): koroa.

2.1. Botere Legegilea

Espainiako parlamentuari *Gorte Orokorrak* esaten zaio, eta bi ganberaz osatuta dago: Kongresua eta Senatua (Konst. 66.1. artikulua).

Parlamentuak legegintzarako ahalmena du, aurrekontuak onartzen ditu, eta gobernuaren jarduera kontrolatzen du (Konst. 66.2. artikulua).

Bietako kideak (diputatuak eta senatariak) sufragio unibertsal eta orokor bidez hautatzen dira (Konst. 68. eta 69. artikulua).

a) Kongresua

Kongresuari honako hau dagokio:

- Legeen eraketan eta onarpenean parte hartzea; berak du azken hitza.
- Gobernuko presidentea aukeratzea.
- Zentsura-botoaren bitartez edo konfiantza ukatuz gobernuaren dimisioa eragitea.

Kongresuko diputatuak probintzia bakoitzeko hautatzen dira. Probintzia bakoitzari diputatu kopuru bat dagokio biztanlegoaren arabera; adibidez, Arabari 4, Bizkaiari 8, Gipuzkoari 6 eta Nafarroari 5. Gutxien duena Soria da (2); gehien dutenak Madril (37) eta Bartzelona (32) dira.

Probintzia bakoitzean D'Hont sistemaren bitartez egiten da diputatuen hautaketa, nolabaiteko proportzionaltasuna lortzeko.

b) Senatua

Senatuak ere legeen eraketan parte hartzen du, eta lurraldeen ordezkariak du. Probintzia oinarri gisa hartuta eratu zen (1978an), ordea, eta geroago Espainia estatu autonomiko gisa antolatu zen; beraz, oinarri gisa autonomia-erkidegoak hartu beharko lirateke.

Hori dela eta, lurralde-ordezkaritza bikoitza du:

- Probintzia bakoitzeko 4 senatari hautatzen dira (boto gehien lortzen duenarentzat 3 senatari, bigarrenarentzat 1).
- Autonomia-erkidego bakoitzeko gutxienez senatari bat, eta milioi biztanle bakoitzeko beste bat (parlamentu autonomikoak aukeratuta).

Horrela, Euskadiko Erkidego Autonomoak 15 senatari ditu (4 probintzia bakoitzari dagozkio, eta 3 erkidegoari) eta Nafarroako Foru Erkidegoak 5 (4 probintziari dagozkio, eta 1 erkidegoari).

2.2. Botere Exekutiboa

Gobernuak zuzentzen ditu barne-politika eta kanpo-politika, administrazio zibila eta militarra eta estatuaren defentsa. Berak gauzatzen du funtzio exekutiboa eta erregelamendu-ahalmena du, Konstituzioarekin eta legeekin ados (Konst. 97. artikulua).

Gobernuaren eraketa:

- Hauteskundeen ondoren, erregeak parlamentuan ordezkariak (diputatuak) lortu duten talde guztien ordezkariekin izaten du elkarrizketa.
- Ondoren, hautagai bat proposatzen du (normalean, parlamentuan hautatua izateko boto gehien duen ordezkaria, edo behintzat parlamentuan diputatu gehien duen taldearen ordezkaria).
- Hautagai horrek Kongresuaren konfiantza lortzen badu (gehiengo absolutuz lehenengo bozketan, gehiengo sinplez bigarrean), erregeak gobernuko presidentea izendatzen du;
- Gobernuko presidentea ministroak aukeratuko ditu, gobernuaren eraketa.

Parlamentuak gobernuaren kontrolatzen du, eta zentsura-mozioaren bitartez gobernuaren dimisioa eragin dezake (presidentea izateko hautagaia aurkeztu behar da). Bestalde, konfiantza-mozioaren bidez, gobernuak parlamentuaren babesa lor dezake.

2.3. Botere Judiziala

Botere Judizialak ziurtatzen du erakundeek eta norbanakoek legea betetzen dutela. Alde horretatik, arau juridikoa aplikatzen du (aplikatu, ez egin), eta arau juridikoa hausteagatik dagokion zigorra edo isuna ezartzen du.

Justizia Administrazioak, bere osotasunean, egikaritzen du Botere Judiziala (bake-epaitegiak, lehen instantziako epaitegiak, probintzia-auzitegiak, autonomia-erkidegoetako auzitegi nagusiak, Auzitegi Gorena, Konstituzio Auzitegia).

Epailleak independenteak dira, eta legearen agintera baino ez daude menderatuak (Konst. 97. artikulua).

Herritarrek epaitegietara jo dezakete haien eskubideen defentsa lortzeko.

2.4. Koroa

Espainiako estatuburua erregea da, «estatuaren batasunaren eta iraupenaren ikurra»; nazioarteko harremanetan estatuko ordezkari gorena da. Koroa oinordetzazkoa da (Konst. 56. artikulua).

Erregearen funtzioak (Konst. 62. artikulua): legeak aldarrikatzea (baina ez egitea), Gorte Orokorrak deitu eta desegitea (presidenteak eskatuta), presidente hautagaia proposatzea, gobernuko ministroak izendatzea, grazia-funtzioak (ohoreak eta indultuak) ematea, gudarostearen goreneko buruzagi izatea.

3. ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETA

Espainia deszentralizatutako estatua da, eta estatu autonomiko gisa eratzen da. Konstituzioaren 137. artikulua arabera, lurralde-antolaketari dagokionez, estatua udalerriz, probintziaz eta eratu daitezkeen autonomia-erkidegoz osaturik dago. Hasiera batean, erregio guztiak ez ziren autonomia-erkidegoetan antolatuko; lurralde historikoek bakarrik izango zuten eskubide hori (euskal lurraldeak, Katalunia, Galizia).

- Konstituzioaren 143. artikulua: autonomia-erkidego gisa eratu ahal izango dira honako hauek: historia-, kultura- eta ekonomia-ezaugarri komunak

dituzten probintzia mugakideak; uharte-lurraldeak, eta historiaz eskualde-izaera duten probintziak.

- Konstituzioaren 148. artikulua: autonomia-erkidegoek izan ditzaketen eskumenen zerrenda jasotzen da.
- Konstituzioaren 149. artikulua: estatuaren eskumen eskusiboak.

1981ean lehen hitzarmen autonomikoak adostu ziren, eta, horien arabera, lurralde guztiek zuten autonomia-erkidegoa eratzeko eskubidea; baina bi mailatako autonomiak ezberdindu ziren:

- Bigarren mailako autonomia-erkidegoak: Konstituzioaren 148. artikuluan agertzen diren eskumenak dituzte, baina zehazki autonomia-estatutuan agertzen direnak (jaso ez badira, estatuaren eskumenak dira lurralde horretan). Hamahiru erkidego dira: Aragoi, Asturias, Balear Uharteak, Errioxa, Extremadura, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Kanariar Uharteak, Kantabria, Madril, Murtzia, Nafarroa eta Valentzia.
- Lehen mailako autonomia-erkidegoak: Konstituzioaren 148. artikuluko eskumen guztiez gain, 149. artikuluko zenbait eskumen berenganatu dituzte (berez, estatuarenak izan behar zirenak). Lau erkidego dira: Andaluzia, Euskadi, Galizia, Katalunia.

Autonomia-estatutu bakoitzak eskumenen zerrenda propioa duenez, berez, hamazazpi autonomia-maila ezberdin daude Espainiako estatuan (ez daude berdinak diren bi estatutu). Euskadi da eskumen gehien duen erkidegoa, zergei buruzkoa barne, kontzertu ekonomikoa dela medio. Nafarroak, bigarren mailako autonomia-erkidegoa izanik ere, badu zergei buruzko eskumena. Hala ere, zenbait autonomia-estatutu ez daude osaturik; hau da, estatuak ez dizkio erkidegoari dagozkion eskumen guztiak igorri (Euskadiren kasua, adibidez).

1995ean bigarren hitzarmen autonomikoak adostu ziren, eta, horien arabera, Melilla eta Ceuta hiri autonomiko gisa eratu ziren.

Autonomia-erkidegoetan botereen banaketa islatzen da:

- Botere Exekutiboa gobernu autonomoaren esku. Euskadiko kasuan, Eusko Jurlaritzak.
- Botere Legegilea parlamentu autonomoaren esku. Euskadiko kasuan, Eusko Legebiltzarra. Honek kutsu konfederala du, lurralde historiko bakoitzak diputatu kopuru berdina baitu, 25 hain zuzen. Hori dela eta,

Bizkaiko diputatu batek 45.500 biztanle ordezkatzeko, Gipuzkoako diputatu batek 28.500 eta Arabako batek 13.100.

- Botere Judiziala: autonomia-erkidego barneko justizia-administrazioaz osatua. Euskadiko kasuan, bake-epaitegiak, lehen instantziako epaitegiak, probintzia-auzitegiak eta Euskadiko Auzitegi Nagusia.

Gai honen inguruan kontuan hartzeko xedapen interesgarri batzuk:

- Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria: Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak. Foru-araudiaren eguneratze orokorra Konstituzioaren eta autonomia-estatuen esparruan egingo da.
- Euskadiko autonomia-estatutuaren xedapen gehigarria: estatutuan finkatutako erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi Euskal Herriak herri gisa historian zehar dagozkiokeen eskubideei uko egiten dienik; eskubide horiek ordenamendu juridikoak erabakitzen duenaren arabera gaurkotu daitezke.
- Konstituzioaren behin-behineko laugarren xedapena: Nafarroak Euskadiko autonomia-erkidegoan sartzeko eskubidea du. Nafarroako Parlamentuak erabaki behar du, eta erreferendumean berretsi behar da.

IV. gaia. ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

1. KONTZEPTUA

Zuzenbidearen iturriak aztertzerakoan, hiru kontzepturi buruz hitz egin daiteke:

a) Zuzenbidearen iturri dokumentalak

Izenak berak adierazten duen bezala, dokumentuei buruz ari gara, estatu edo herrialde baten zuzenbidea ezagutzeko aukera ematen duten dokumentu juridikoez. Adibidez, Konstituzioa, Kode Zibila, foru-konpilazioak, lege zehatzak eta abar.

b) Zuzenbidearen iturri materialak

Kasu honetan, zuzenbidearen zergatiari buruz ari gara. Eztabaida filosofikoa da nolabait, arauak sortzeko ahalmena duten indar sozialak baitira zuzenbidearen iturri materialak.

d) Zuzenbidearen iturri formalak

Zuzenbidea sortzeko dauden era eta bide ezberdinei buruz ari gara; hau da, zuzenbidea baliozkoa izateko nola sortu behar denari buruz.

Hau da ikuspuntu garrantzitsuena, herrialde bateko zuzenbidea osatzen duten arauak baliozkoak izateko bete behar dituzten baldintzak zein diren ezagutzeko aukera ematen duelako. Herritarrek aplikatuko zaien zuzenbidea zein den jakiteko aukera izan behar dute, eta zuzenbide hori egokia eta baliozkoa den.

2. HIERARKIA

Kode Zibilaren 1.1. artikulua araberak, Espainiako ordenamendu juridikoaren iturriak legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak dira.

Legea eta legezko xedapenak dira lehenik eta behin aplikatuko direnak. Estatuaren boterean jatorria duten arau guztiak dira.

Ez badago aplikagarria den legerik, ohitura aplikatuko da, betiere moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta frogatutzat ematen bada (KZ 1.3. artikulua). Orokorrean, estatuaren aparatutik alboratuta dauden talde sozialen ohiturak liriteke, zeini balio juridikoa ematen baitzaie.

Zuzenbidearen printzipio orokorrek ordenamendu juridikoa informatzen dute; hala ere, zuzenbidearen iturri gisa, lege eta ohiturarik ezean aplikatuko dira (KZ 1.4. artikulua). Sinesmen eta baloreak izanik, askotan ez daude argi adierazita.

3. LEGEA

Legea estatuaren boterean jatorria duen arau juridikoa da. Hori dela eta, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorretatik bereizten da.

Legearen kontzeptu orokor horretan honako hauek sartzen dira:

- Konstituzioa: herrialde baten ordenamendu juridikoaren lege gorena da, legeen legea.
- Legeak berezko zentzuan: parlamentuak landutako eta onartutako arauak dira, Konstituzioan jasotako irizpideak jarraituz.
- Botere Exekutiboak emandako xedapenak: gobernutik eratortzen dira, eta legeetan jasotzen diren oinarriak garatzen dituzte.

3.1. Konstituzioa

Herriaren funtsezko legea da. Konstituzioak pertsonaren oinarrizko eskubideak definitzen ditu, eta erregimen publikoaren lerro nagusiak finkatzen ditu. Espainiako Konstituzioa idatzia da, eta testu bakarrean jasotzen da (Erresuma Batuko edo Israelgo konstituzioak ez daude idatzita; Estatu Batuetako Konstituzioa testu batean jasotzen da, baina egin zaizkion emendakinak horren parte ere badira).

Konstituzioaren ezaugarriak:

- Konstituzioa lantzeko eta onartzeko Gorte Eratzaileak hautatu ziren (Konstituzioa egitea helburu zuten Kongresua eta Senatua, 1977/7-1979/1). Bi ganberetan beharrezkoa izan zen gehiengo kualifikatua, eta ondoren erreferenduma egin zen.
- Konstituzioa aldatzeko beharrezkoa da 4/5eko gehiengoa bi ganberetan, hau da, Kongresuan eta Senatuan (Konst. 167. artikulua).
- Funtsezko atal bat aldatu nahi bada edo Konstituzio osoa berriztatu nahi bada, bi ganberetan 2/3eko gehiengoa behar da prozesua hasteko.

Ondoren, hauteskundeak egin behar dira parlamentu berria hautatzeko. Horrek Konstituzioaren aldaketa prestatuko du, eta aldaketa onartzeko 2/3eko gehiengo behar da bi ganberetan. Ondoren, erreferenduma (Konst. 168. artikulua).

- Konstituzioa lege gorena izanik, lege guztiek eta arau guztiek zaindu behar dute, eta ezin dira haren aurka joan.
- Auzitegi zehatz batek izango du lege guztiek Konstituzioa zaintzen dutela bermatzearen ardura; hain zuzen, Auzitegi Konstituzionalak. Honek hiru botereen (legegilea, exekutiboa, judiziala) arteko konpetentzia-gatazkak konponduko ditu, eta baita estatu eta autonomia-erkidegoen artean sortu daitezkeen eskumen-gatazkak ere.

3.2. Legeak berezko zentzuan

Parlamentuak landutako eta onartutako arauak dira, Konstituzioak jasotako irizpideak jarraituz, eta formalitate zehatz batzuk bete behar dira.

a) Lege organikoak (Konst. 81. artikulua)

Lege organikoek honako gai hauek arautzen dituzte:

- Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen garapena.
- Autonomia-estatutuak.
- Hauteskunde-araubide orokorra.
- Konstituzioan aurreikusitako gainerako gaiak.

Lege organikoak onartzeko, aldatzeko edo indargabetzeko, beharrezkoa izango da Kongresuan gehiengo absolutua, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

b) Lege arruntak

Lege arruntek Konstituzioaren 81. artikulua aipatzen ez dituen gai guztiak arautuko dituzte. Beren onarpenerako nahikoa izango da ganbera bakoitzean aldeko botoen gehiengo sinplea.

Parlamentuak gobernuari lege arrunten onarpenera delega diezaiolke.

d) Delegaziozko eta premiazko legedia

Kasu zehatzetan, gobernuak legegintzarako ahalmena du, baina ahalmen hori ez da gobernuak duen berezko eskumena (gubernua ez da Botere Legegilea). Gobernuak lege arrunten eraginkortasuna duten xedapenak eman ditzake bi kasu hauetan:

- Parlamentuak (hau da, Botere Legegileak) gobernuari eskuordetza ematen dionean; kasu horretan, gobernuak legegintza-dekretuak onar ditzake.
- Premiazko kasuetan, gobernuak lege-dekretuak onar ditzake.

d.1) Legegintza-dekretuak (Konst. 82. artikulua)

Parlamentuak gobernuari egiten dion delegazioa espresuki egindakoa izan behar da, gai zehatz baterako eta legegintza-dekretua onartzeko epea zehatzuz. Gobernuak ez badu legegintza-dekretua egiten zehaztutako epearen barruan, delegazioa bertan behera geldituko da (gaia arautu nahi bada, delegazio berria egin beharko du parlamentuak).

Delegazioa egiteko, bi tresna ditu parlamentuak:

- Oinarri-legea, lege-mailako araua onartu nahi denean. Parlamentuak oinarri-legean zehaztuko ditu gobernuak derrigorrez jarraitu behar dituen oinarri eta irizpideak, baita delegazioak iraungo duen epea ere.
- Lege arrunta, lege-testu ezberdinak bakar batean batu nahi direnean.

d.2) Lege-dekretuak (Konst. 86. artikulua)

Aparteko eta premiazko egoeretan, gobernuak behin-behineko legegintza-xedapenak eman ditzake, lege-dekretuaren forma hartuko dutenak.

Lege-dekretuek ezin izango dituzte honako gai hauek arautu:

- Estatuaren oinarrizko erakundearen ordenamendua.
- Herritarren oinarrizko eskubide, askatasun eta betebeharrak.
- Autonomia-erkidegoen araubidea.
- Hauteskunde Zuzenbidea.

Gobernuak, lege-dekretua aldarrikatu eta gehieneko hogeita hamar eguneko epean, Kongresuari aurkeztuko dio, hark balioztatzeko (eta lege arrunt gisa onartzeko) edo indargabetzeko.

e) Nazioarteko itunak

Gobernuak, estatuaren izenean, sinatzen dituen nazioarteko itunak parlamentuak baieztatu behar ditu. Horren ondoren, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira eta ordenamendu juridikoaren parte bilakatzen dira, legearen maila harturik.

Berez, nazioarteko itunak herrialde baten ordenamenduaren eta Konstituzioaren beraren gainetik daude, zeren eta estatu batek bere ordenamenduarekin bat ez datorren nazioarteko ituna sinatu nahi badu bi aukera baititu: bere ordenamendua aldatzea (nahiz eta Konstituzioa bera izan) edo nazioarteko ituna ez sinatzea.

f) Europar Batasunaren zuzenbidea

Espainia Europar Batasunaren estatu kidea da, beraz, Europar Batasuna arautzen duten itunak (Europar Batasuneko Ituna eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna), nazioarteko itunak diren heinean, Espainiako ordenamendu juridikoaren parte dira.

Europar Batasuna integraziozko erakundea da, hau da, bertako kide diren estatuak subiranotasuna laga diote esparru askotan Europar Batasunari. Esparru horien inguruan arauak onartzeko ahalmena dute Europar Batasunaren erakunde legegileek (Europako Parlamentuak eta Kontseiluak), eta horiek onartzen dituzten legeak (erregelamenduak, zuzentarauak eta erabakiak) indarra dute estatu kideetan, lege mailako arauen modura.

3.3. Botere Exekutiboak emandako xedapenak

Gobernuak, bere funtzioak aurrera eramateko eta, bereziki, Administrazio Publikoen ekintzak arautzeko, erregelamendu-mailako arauak egin ditzake, beti legeen menpe kokatzen direnak eta legeak zaindu behar dituztenak.

Bi motatakoak izan daitezke:

- Dekretuak: gobernuko presidentek edo Ministroen Kontseiluak onartzen dituen xedapenak.
- Ministro-agindua: ministroak onartutako xedapena, dagokion esparruaren gai baten inguruan.

4. OHITURA

Kode Zibilaren 1.3. artikulua arabera, ohitura aplikagarri den legerik ez dagoenean soilik aplikatuko da, baldin eta ohitura moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta frogatutzat ematen bada.

Estatu modernoetan, estatuaren aparatuek sortzen duten zuzenbideak (arau multzoak) jadanik berenganatuta ditu gizartean betidanik orokortuta egon diren ohiturak eta printzipioak. Euskal lurraldeen kasuan, Erdi Arotik aplikatzen diren «ohitura» asko lege gisa antolatuta daude Foru Zuzenbidearen bitartez.

Hori dela eta, ohiturari buruz ari garenean, orokorrean estatuaren aparatutik alboratuta dauden talde sozialen ohiturei buruz hitz egiten dugu, zeinei balio juridikoa ematen baitzaie (ijitoen kasua adibidez, edo talde erlijiosoena; hala nola, Jehovaharen lekukoak edo musulmanak).

4.1. Ohitura eta gizarte-usadioak

Ohitura gizarte-usadioak sortutako eta orokortutako araua da; hau da, ohitura ekintza batzuen errepikapenaren bidez eratzen da. Ez da gauza bera, ordea, ohitura arau juridiko gisa eta gizarte-usadio huts gisa (adibidez, ezagunak agurtzeko usadioa).

Gizarte-talde batean ohitura bat interesen gatazka bat konpontzeko aplikatzen bada, gizarte-talde horretan ohiturak arau juridikoaren balioa duen ideia orokortu dela ondorioztatzen da. Kasu horretan, agintaritzak ohiturari arau juridikoaren balioa ematen dio, helburu berdina duelako; hain zuzen ere, elkarbizitza babestea eta gatazkak konpontzea. Ez da ahaztu behar horrela izango dela, betiere, ohitura moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada (aurkakoa bada, agintaritzak ez du ohitura aintzat hartuko).

Gatazka baten aurrean, epaileen aurrean ohitura baten aplikazioa eskatzen bada, frogatu egin behar da:

- Lehenik eta behin, aplikagarri den legerik ez dagoela.
- Eta ohitura bera badela (lekukoaren bidez, gizarte-taldearen ordezkarien bidez, entitate ezberdinen irizpideen bidez, eta abar).

4.2. Ohitura motak

a) *Contra legem* ohitura

Indarrean dagoen lege baten aurkako agindua duen ohitura da. Kode Zibilak 1.3. artikuluan jasotakoaren arabera, ohitura legerik ezean aplikatuko da, eta, kasu honetan, legea badago. Gainera, legearen aurkakoa da ohitura.

b) *Secundum legem* ohitura

Legezko arau batean agertzen den agindua duen ohitura da. Ez da legearen aurkakoa, baina legea egonda, legea aplikatuko da.

d) *Praeter legem* edo *extra legem* ohitura

Legean aurreikusten ez den egoera edo gaia arautzen duen ohitura da. Horri egiten dio erreferentzia Kode Zibilak eta, beraz, ohitura hori aplikagarria litzateke, legerik ez dagoelako, betiere, ohitura moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada.

5. ZUZENBIDEAREN PRINTZIO OROKORRAK

Gizartean guztiz erroturik dauden sinesmenak eta baloreak dira. Ordenamendu juridiko osoa informatzen dute (KZ 1.4. artikulua), baina ez dute arau multzo bateratu bat osatzen.

Horietako printzipio asko legeetan daude, ordenamendu juridikoa informatzen duten heinean, ordenamenduak berak jasotzen baititu:

- Konst. 1.1. artikulua: balore nagusiak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa dira.
- Konst. 10. artikulua: pertsonaren duintasuna.
- Konst. 14. artikulua: legearen aurrean berdintasuna.
- KZ 1255. artikulua: kontratatzeaskatasuna.
- KZ 1902. artikulua: eragindako kaltea konpontzeko beharra.

Zuzenbidearen printzipio orokorrak analogiaren bidez aplikatzen dira:

- *Analogia legis*: kasu zehatz baterako aplikagarria den legerik ez balego, kasu berdintsu bat arautzen den legea aplikatuko da.
- *Analogia iuris*: kasu berdintsu bat arautzen duen legerik ez balego, epaileak ordenamendu juridikoa informatzen duten printzipio orokorren artean dagokion kasuari aplikagarri zaiona ondorioztatu beharko du.

V. gaia. ZUZENBIDEAREN SUBJEKTUAK

Zuzenbidearen subjektuak arau juridikoen jasotzaileak dira; hau da, arau juridikoak subjektuei zuzenduta daude. Zuzenbidearen helburua gizartean elkarbizitza armonikoa lortzea izanik, gizartea osatzen duten kideei zuzentzen zaie: pertsonari.

Zuzenbidearen subjektuak pertsonak dira, baina Zuzenbidearentzat bi pertsona mota daude:

Pertsona fisikoak:

Pertsona fisikoak gizakiak dira, eta Zuzenbidearen subjektuak dira, hain zuzen, gizakiak direlako. Ordenamendu juridikoak gizakiaren nortasuna aintzat hartzen du (ez dio ematen nortasuna), eta gizakia eskubide eta betebeharren subjektu bezala onartzen du (berez baditu, eta ordenamendu juridikoak aintzat hartzen ditu).

Pertsona juridikoak:

Pertsona juridikoak pertsona fisikoak ez diren entitateak dira, zeinei ordenamendu juridikoak harreman juridikoen subjektu izateko gaitasuna ematen baitie. Pertsona juridikoen kasuan, eskubide eta betebeharren subjektuak dira, ordenamendu juridikoak horretarako gaitasuna ematen dielako momentu horretatik aurrera (hori baino lehen ez dira juridikoki existitzen).

VI. gaia. PERTSONA FISIKOA

1. JAIOTZA. JAIIO EZ DENAREN BABESA

Kode Zibilaren 29. artikulua arabera, pertsona fisikoaren kasuan jaiotzak nortasuna zehazten du. Hurrengoak, 30. artikulua, zehazten duenez, pertsonak bizirik jaiotzen den unean lortzen du nortasuna, amaren sabeletik erabat askatu ondoren (zilbor-hestea ebakitzen den unea hartzen da kontuan).

Horren arabera, ordenamendu juridikoak jaiotzaren momentuan bertan hartzen du aintzat gizakiaren nortasun juridikoa; hau da, gizakia Zuzenbidearen subjektu da jaiotzen den unetik.

Kode Zibilaren 29. artikulua honako hau ere adierazten du: sortua (umekia) onuragarri zaizkion efektu guztietarako jaiotzat joko da, baldin eta 30. artikuluan jasotako baldintzekin jaiotzen bada. Egoera horren arabera:

- Jaio ez den sortuak ez du nortasun juridikorik.
- Baina amaren sabelean dagoen bitartean, ordenamendu juridikoak onuragarriak zaizkion eskubideak babesten dizkio.
- Amaren sabeletik erabat askatu ondoren bizirik badago, jaiotzat hartzen da; beraz, nortasun juridikoa du eta eskubide horiek jasoko ditu.

Oinordetzaren inguruko adibidea: Gizon bat hil egin da bere bikotea haurdunaldiaren seigarren hilabetean dagoen bitartean. Gizona da jaio daitekeen haurraren aita, baina ez du testamenturik egin.

- Testamentua egin barik hiltzen den pertsonaren ondarea pertsona horren ondorengoentzat izango da (seme-alabak edota ilobak), baina, ondorengorik ez badago, pertsona horren arbasoentzat izango da (gurasoak edota aitona-amonak).
- Amak arazo larriak ditu eta umekia galtzen du. Ez da jaiotzarik egon, beraz, juridikoki ez da existitu inongo pertsonarik. Horren ondorioz, gizonaren ondasunak bere gurasoentzat izango dira.
- Haurdunaldia aurrera doa eta emakumeak haurtxoa erditzen du, bizirik dagoen umea. Jaiotza gertatu da eta, beraz, umeak nortasun juridikoa du. Umeak aitaren ondasunen jabetza jasoko du (ordenamendu juridikoak onuragarri zaizkion eskubideak babestu ditu, eta momentu horretan

titularra umea dela onartzen du). Arrazoi bategatik edo besteagatik umea hiltzen bada, ondasun horiek oinordetzaz umearen amak jasoko ditu.

2. PERTSONAREN BUKAERA

Nortasun juridikoa pertsonaren heriotzarekin desagertzen da (KZ 32. artikulua). Logikoa denez, pertsonak, hiltzen den unetik aurrera, eskubide eta betebeharren titular izateari uzten dio.

Oinordetza-eskubideekin arazoak sortu daitezke. Horren inguruan, Kode Zibilaren 33. artikulua honako hau adierazten du:

- Elkarren artean oinordetu behar duten bi pertsonaren edo gehiagoren artean, lehenengo nor hil den ezagutzen ez bada, bataren edo bestearen heriotza defendatzen duenak frogatu beharko du.
- Frogarik ez balego, une berean hil direla ondorioztatzen da, eta ez da euren arteko eskubideen igorpenik ematen.

Adibidea: auto-istripu batean aita eta bere seme bakarra hiltzen dira.

- Alargunak lehenengo senarra hil dela frogatzen badu, semea litzateke aitaren oinordeko, eta, semea ondoren hil denez, haren oinordekoa ama izango litzateke. Horrela, gizonaren oinordetza osatzen duten ondasunak semeari igortzen zaizkio, eta, umea hil ondoren, amari.
- Froga ezinezkoa bada, aita eta semea batera hil direla ondorioztatzen da, eta ez dela eskubideen igorpenik egon. Semea ez da aitaren oinordekoa; bai, ordea, aitaren gurasoak.

3. GAITASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA

Gaitasun juridikoa kontzeptu estatikoa da.

Pertsonaren atributu bat da, jaiotzarekin eskuratzen dena eta heriotzarekin agortzen dena (bat dator nortasun juridikoarekin). Horren arabera, pertsona eskubide eta betebeharren titularra da; titularitate horrek, ordea, ez dakar berekin eskubide eta betebeharrak horiek egikaritu daitezkeenik. Horretarako, gaitasun juridikoaz gain, beharrezkoa da jarduteko gaitasuna.

Jarduteko gaitasuna kontzeptu dinamikoa da.

Jarduteko gaitasunak gaitasun juridikoa eskatzen du; hau da, jarduteko gaitasuna izateko, aurretik gaitasun juridikoa izan behar du pertsonak. Gaitasun juridikoak eskubide eta betebeharren titularitatea ekartzen badu, jarduteko gaitasunak eskubide horiek egikaritzeko eta betebeharrei aurre egiteko ahalmena dakar. Hau da, jarduteko gaitasuna ekintza juridikoak eraginkortasunez egiteko gaitasuna da.

Adibidez, hamabi urteko ume batek oinordetzaz balio handiko ondasunak eta diru kopuru handia jaso ditzake. Horien jabetza izango du, hau da, ondasun eta diru horien gaineko jabego-eskubideen titularra izango da. Hala ere, ezin izango du inongo ondasunik saldu edo diruarekin ezer erosi, ez duelako horiek erabiltzeko legezko ahalmenik, hau da, ez duelako jarduteko gaitasunik.

3.1. Adina

Gaitasun juridikoa jaiotzarekin lortzen da, baina jarduteko gaitasuna lortzeko beharrezkoa da pertsonak heldutasun-maila bat izatea. Hau da, pertsonak bere ekintzen eraginen gaineko borondate jakitun bat izan behar du; azken finean, aurrera eramaten dituen ekintzek zein ondorio izan ditzaketen aldeztatik jakitea.

Ordenamendu juridikoak ezin du kasu bakoitza aztertu heldutasun hori noiz lortzen den zehazteko; hori dela eta, arau orokor bat ematen du:

- Adin-nagusitasuna hamazortzi urte betetakoan hasten da (KZ 240. artikulua).
- Adinez nagusiak bizitza zibileko ekintza guztiak gauzatzeko gaitasuna du (KZ 322. artikulua), nahiz eta Kode Zibilak kasu gutxi batzuetarako adin nagusiagoa eskatzen duen (adibidez, adoptatzeko, beharrezkoa da hogeita bost urte izatea) (KZ 175. artikulua).

Adinez txikiak jarduteko gaitasuna du bakarrik ordenamenduak adierazten dituen kasu zehatzetan (eta ekintza horietarako bakarrik): hamalau urteko adina nahikoa da testamentua egiteko (KZ 663. artikulua) edo lekuko izateko (Prozedura Zibileko legearen 361. artikulua). Adinez txikia eskubide eta betebeharren titularra da (gaitasun juridikoa duelako), baina horiek egikaritzea bere legezko ordezkariaren bitartez egin behar da.

3.2. Emantzipazioa

Kode Zibilaren 247. artikulua arabera, emantzipazioak adinez txikiari aukera ematen dio bere pertsona eta ondasunak adin-nagusitasuna izango balu bezala arautzeko, hau da, adinez nagusi gisa aritzeko, jarduteko gaitasuna duelarik.

Emantzipazioa lortzeko kasuak honako hauek dira (KZ 239. artikulua):

- Guraso-ahala dutenek (gurasoek edo tutoreak) emantzipazioa ematen dute: adinez txikiak gutxienez 16 urte izan behar ditu, eta emantzipazioa onartu behar du epailearen aurrean.
- Epaileak emantzipazioa ematen du adinez txikiak eskatuta, betiere gutxienez 16 urte baditu, eta gurasoak entzunda, hiru kasu hauetan (KZ 243. artikulua): guraso-ahala duen gurasoa beste pertsona batekin ezkontzen denean, gurasoak banandurik daudenean, guraso-ahala egikaritzea ezinezkoa denean.

Emantzipatuak duen jarduteko gaitasunak muga batzuk ditu, eta gurasoen edo tutorearen baimena behar du adin-nagusitasunera heldu arte honako kasu hauetan (KZ 247. artikulua):

- Dirua maileguan hartzeko.
- Ondasun higiezinak edo balio handiko ondasunak saltzeko.
- Ondasun horien gain betebeharrak eratzeko.

3.3. Laguntza-neurriak

Gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten pertsonentzat laguntza-neurriak aurreikusten ditu Kode Zibilak, pertsonen duintasunean eta beren funtsezko eskubideen babesean oinarritzen diren neurriak (KZ 249. artikulua).

Lau motatako laguntza-neurriak daude (KZ 250. artikulua), eta guztien funtzioa da desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzea beharrezko arloetan, betiere, bere borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz.

- a) **Borondatezko laguntza-neurriak.** Desgaitasuna duen pertsonak zehazten ditu; laguntza emango dion pertsona izendatzen du, eta norainoko laguntza izango den ere bai. Epaileak egokitzat jotzen dituen bermeak ezarri ahal izango ditu, laguntza-neurrien egikaritzeak pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak betetzen dituela ziurtatzeko.
- b) **Izatezko zaintza.** Neurri ez-formala da, borondatezko laguntza-neurriarik edo epai-neurriarik ez dagoenean egon daitekeena. Orokorrean, zaintzailea desgaitasuna duen pertsonaren senidea edo ahaidea da. Zaintzaileak epailearen baimena behar du desgaitasuna duen pertsonaren ordezkari gisa jokatu behar duenean.
- d) **Kuradoretza.** Etengabeko laguntza behar dutenei aplikatuko zaien laguntza-neurri formala da. Haren zabalera dagokion ebazpen judizialean zehaztuko da, desgaitasuna duen pertsonaren egoera eta baldintzak kontuan hartuz, eta bere laguntza-beharrekin bat etorriko da.
- e) **Defendatzaile judiziala.** Laguntza-neurri formal gisa defendatzaile judiziala izendatuko da, laguntza eman behar duenari ezinezkoa zaionean, desgaitasuna duen pertsonaren eta laguntza eman behar dionaren artean interesen gatazka dagoenean, edo laguntza-beharra noizean behin ematen bada, baina behin eta berriro.

4. NAZIONALITATEA ETA AUZOTASUNA

4.1. Nazionalitatea

Komunitate politiko batean (herrialde edo estatu batean) nazionalitateak subjektuaren parte-hartze osoa adierazten du. Estatu batean nazionala den subjektua herrialde horren ordenamendu juridikotik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak guztien titularra da (atzeritarrak ez, nahiz eta oinarrizko eskubideak babestuak izango dituzten).

Zehazki, nazionalak bakarrik izango dute ordenamendu juridiko horretatik eratortzen diren eskubide politikoaren titulartasuna; horren ondorioz, hauteskundeetan parte hartu dezakete eta kargu publikoetarako hautagai izan daitezke.

Espainiaren kasuan, nazionalitatea eskuratzeko bideak hauexek dira:

- a) Jaiotzaz (KZ 17. artikulua). Espainiarrak dira:
- Aita edo ama espainiarra dutenak.
 - Espainian jaiotakoak, gurasoak atzerritarrak izanik, bietako bat Espainian jaiotakoa bada.
 - Espainian jaiotakoak, gurasoak atzerritarrak izanik, nazionalitaterik ez badute.
 - Espainian jaiotakoak, filiazioa zehaztu ezin denean.
- b) Adopzioz (KZ 19. artikulua). Espainiar nazionalak adoptatutako atzerritar adinez txikia espainiarra da adopzioaren unetik. Adinez nagusia bada, bi urteko epea du espainiar nazionalitatea hautatzeko.
- d) Aukeraz (KZ 20. artikulua). Espainiar nazionalitatea eska dezakete:
- Espainiar baten guraso-ahalari lotuta egon direnek.
 - Aita edo ama Espainian jaiotakoa dutenek.
- e) Egoitzaz (KZ 22. artikulua). Espainian egoitza izateagatik nazionalitatea eska daiteke, honako epe hauek kontuan izanik:
- Orokorrean, hamar urteko egoitza.
 - Errefuxiatuen kasuan, bost urteko egoitza.
 - Iberoamerikako herrialdeetan, Andorran, Filipinetan, Ekuatore Ginean edo Portugalen jatorria dutenen kasuan, bi urteko egoitza; sefardiek ere bai.
 - Urtebeteko egoitza hauen kasuan: Espainian jaiotakoak, espainiar batekin ezkonduetakoak, guraso edo aitona-amona espainiarrak dituzten atzerrian jaiotakoak, espainiar baten alargunak (banaketarik izan ez bazen).

4.2. Europar Batasunaren herritartasuna

Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea daukan pertsona oro da Europar Batasuneko herritar (Europar Batasuneko Itunaren 9. artikulua). Europar Batasuneko herritartasunak ez du ordeztzen estatu kide bakoitzeko nazionalitatea; aitzitik, erantsi egiten zaio.

Europako herritarrek Europar Batasunaren estatu kide guztiek aitortu behar dituzten eskubideak dituzte (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 20-25 artikuluetan jasotzen dira):

- a) Estatu kideetako lurraldean askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea. Merkatu batuaren *lau askatasunetatik* (salgaien, langileen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea) eratorritako eskubideak barne (nazionalitateagatik diskriminaziorik ez).
- b) Hautesle zein hautagai izateko eskubidea, bai Europako Parlamenturako hauteskundeetan, bai eta bizileku duten estatu kideetako udal-hauteskundeetan ere, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan.
- d) Herritar direneko estatu kideak ordezkartzarrik ez daukan hirugarren herrialderen baten lurraldean, beste edozein estatu kideetako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa hartzeko eskubidea, estatu horretako herritarren baldintza berberetan.
- e) Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeko eta erantzuna hizkuntza horrexetan jasotzeko eskubidea, Europako Parlamentuari eskaerak egitean, Europako Herriaren Defendatzailearengana jotzean eta Europar Batasuneko erakunde eta kontsulta-organoei zuzentzean.

4.3. Auzotasuna

Auzotasun zibilak zein zuzenbide zibil den aplikagarria zehazten du: Zuzenbide Zibil Orokorra edo Zuzenbide Forala.

Auzotasun zibila lortzeko bideak hauexek dira (KZ 14. artikulua):

- Jaiotzaz. Seme-alabek gurasoen auzotasuna izango dute.
- Adopzioz. Adoptatuak adoptatzailearen auzotasuna izango du.
- Gurasoek auzotasun ezberdina badute, gurasoek zehaztuko dute zein den seme-alabaren auzotasuna (sei hilabeteko epea dute jaiotzatik edo adopzioz). Ez badute zehazten, jaiotzaren lekua hartuko da kontuan.
- Egoitzaz. Bi urteko egoitza, interesatuak dagokion auzotasuna lortu nahi duela adierazten badu. Hamar urteko egoitza, kontrako adierazpenik ez badago.

- Dudarik balego, jaiotzaren lekuari dagokion auzotasuna. Jaiotza ezin bada zehaztu, Zuzenbide Zibil Orokorra aplikatuko da.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren kasuan, 5/2015 Legeak Euskadiko auzotasun zibila eratzen du. Horren arabera, Euskadiko Zuzenbide Zibila aplikagarria da Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetako (Araba, Bizkai eta Gipuzkoako) biztanle guztiengan (legearen 10. artikulua).

Euskadiko auzotasuna lortzeko bideak Kode Zibilak adierazitakoak dira.

VII. gaia. PERTSONA JURIDIKOA

1. KONTZEPTUA

Pertsona fisikoekin batera, pertsona juridikoak Zuzenbidearen subjektuak dira. Pertsona juridikoak ordenamendu juridikoarengandik nortasun juridikoa jasotzen duten errealitate sozialak dira; hau da, ordenamendu juridikoak harreman juridikoen subjektu izateko gaitasuna aitortzen die.

Errealitate sozial horiek bi baldintza bete behar dituzte:

- a) Bakoitzak berezko banakotasuna izan behar du, hura osatzen duten elementuetatik ezberdindua (elkartekideak, bazkideak, kideak...).
- b) Norbanakoei zail zaizkien helburuak lortu nahi dituzte.

Horrela bada, ordenamendu juridikoak gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen dizkie, pertsona juridikoak eskubide eta betebeharren titularrak direlarik. Zehazki, pertsona juridikoek era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki ditzakete, baita betebeharrak ere, eta akzio zibil edo penalak gauzatu ditzakete, beren eraketa-lege eta arauen arabera (KZ 38. artikulua).

Pertsona juridikoek, pertsona fisikoen modura, betebeharrak ez betetzeagatik erantzukizun zibila dute. Era berean, euren ekintzek eta omisioek besteei eragindako kaltearen erantzule dira. Ordea, ez dute deliturik egiten; delituetan inplikaturik dauden pertsona juridikoen kasuan, erantzukizuna delitua bete duten pertsona fisikoei dagokie.

Pertsona juridikoak elkarteak dira (interes publikokoak edo interes pribatukoak) eta Konstituzioaren 22. artikuluan aitortzen den elkartzeko eskubidean oinarritzen dira:

- Delitutzat tipifikatutako helburuak dituzten elkarteak eta delitutzat tipifikatutako tresnak erabiltzen dituztenak legearen kontrakoak dira.
- Elkarteek izena eman behar dute erregistro batean, publikotasun-printzipioa betetzeko.
- Elkarteak ebazpen judizial baten bidez bakarrik izan daitezke deseginak edo haien ekintzak geldiaraziak.
- Isileko elkarteak eta izaera paramilitarrekoak debekatuta daude.

Pertsona juridikoek ezin dute beren kabuz borondaterik adierazi. Legezko ordezkarien bitartez egingo dute, hau da, dagozkien organoen bitartez, zeinak pertsona fisikoz osatuta egongo baitira:

- Organo erabakitzailea: erabakiak hartzen ditu, eta pertsona juridikoak nola jardungo duen zehazten du;
- Organo exekutiboa: organo erabakitzaileak adierazitakoa betearazi egingo du, eta hirugarrenen aurrean pertsona juridikoaren ordezkaritza izango du.

2. PERTSONA JURIDIKO MOTAK

2.1. Interes publikoko pertsona juridikoak

Kode Zibilaren 35. artikularen lehen zenbakiaren arabera, pertsona juridikoak dira legeak aitortutako interes publikoko korporazioak, elkarteak eta fundazioak. Zuzenbidearen arabera, baliozko eraketaren unetik nortasun juridikoa dute.

Interes publikoko pertsona juridikoak epe baterako edo helburu bat betetzeko sortzen dira; beraz, funtzionatzeari uzten diote epea heltzerakoan edo helburua betetzerakoan. Ondasunik balute, legeek, estatutuek edo eraketa-arauek adierazitakoa jarraituko da; ez badute ezer zehaztu, pertsona juridikoak zituen helburu berdinetarako erabiliko dira (KZ 39. artikulua).

a) Korporazioak

Zuzenbide Publikoko pertsona juridikoak dira: estatua, autonomia-erkidegoak, probintziak, udalak eta horiei hierarkiazko harremanaz loturik dagoen edozein erakunde edo entitate, betiere, helburu orokorrak baditu. Kolegio profesionalak ere korporazioak dira.

Korporazioak pertsonen taldeez osatuta daude eta interes altruista bat dute, irabaziak lortzeko asmorik gabe. Legeak sortzen edo aitortzen ditu, eta horrek arautuko du korporazioak duen gaitasun zibila (korporazioaren jatorria ez dago korporazioa osatzen duten pertsonen borondatean, legean baizik).

b) Elkarteak (zentzu hertsian edo elkargoak)

Korporazioak bezala, pertsonen taldeez osatuta daude, eta interes altruista bat dute, irabaziak lortzeko asmorik gabe.

Zuzenbide Pribatuko pertsona juridikoak dira, ordea, eta euren jatorria elkarte osatzen duten bazkideen borondatean dago, elkartearen estatutuetan adierazten den gisara (elkarteak ez ditu legeak sortzen).

d) Fundazioak

Fundazioen kasuan, nortasuna ez zaio ematen pertsonen talde batez osatutako pertsona juridikoari, baizik eta ondasun multzo bati. Fundatzaileak ondasun multzo horrek izango duen helburua zehazten du, betiere, altruista izanik, irabaziak lortzeko asmorik gabe.

Fundatzaileak, eraketa-arauen bitartez, helburua finkatzeaz gain fundazioaren kudeaketaren ardura izango duen ordezkaria izendatuko du. Beharrezkoa denean, eraketa-arauak administrazio-xedapenen bitartez onartu behar dira. Fundazioen kontrola dagokion Administrazio Publikoaren esku dago.

2.2. Interes pribatuko pertsona juridikoak

Kode Zibilaren 35. artikulua bigarren zenbakiaren arabera, pertsona juridikoak dira legearengatik berezko nortasuna jasotzen duten interes partikularra edo pribatua duten elkarteak ere. Elkarte bakoitza bere elkartekide edo bazkideetatik independente da, berezko nortasun juridikoa duelako.

Interes pribatuko pertsona juridikoak elkarte zibilak, merkataritza-elkarteak edo industria-elkarteak izan daitezke. Horien arauketa sozietate-kontratuaren xedapenen bitartez egiten da (KZ 36. artikulua). Sozietate-kontratuan, bi pertsonak edo gehiagok euren gain hartzen dute dirua, ondasunak edo industria partekatzeko beharra, irabaziak euren artean banatzeko asmoarekin (KZ 1665. artikulua).

Merkataritza-sozietateen kasuan, kontuan hartu behar da Merkataritzako Kodean jasotako arauketa (II. liburua, 116-243 artikulua), baita Sozietate Kapitalisten Legea ere (ekainaren 2ko 1/2010 Legegintza Dekretua). Kooperatiben kasuan, estatu mailan Kooperatiben Legea (uztailaren 16ko

27/1999 Legea) eta Euskadiko Kooperatiben Legea (abenduaren 20ko 11/2019ko Legea).

Interes pribatuko elkarteei buruzko ideia orokorrak:

- Elkarte bat sortu nahi duten pertsonak eratzeko batzar bat egin behar dute, non elkartearen estatutuak onartu behar baitira.
- Elkartearen estatutuek derrigorrez jaso behar dituzten elementuak hauek dira: elkartearen izena, helbidea, helburuak, arituko den lurralde-eremua, zuzendaritza-organoak, kide izateko arauak, ondarea, aurrekontuen muga.
- Batzar Orokorra elkartearen kide guztiez osatzen da. Elkartearen gobernu-organo gorena da, eta Zuzendaritza Batzordea hautatu eta kontrolatzen du. Urtean behin, ohiko batzarra egingo du kontuak eta aurrekontuak onartzeko (ezohiko batzarrak ere egin daitezke). Erabakiak gehiengoz hartzen ditu.
- Zuzendaritza Batzordea elkartearen kudeaketaren ardura duen organoa da. Burua presidentea da, elkartearen ordezkaria duena.

VIII. gaia. ESKUBIDE SUBJEKTIBOAK

1. KONTZEPTUA

Ordenamendu juridikoa (legea, arauak) Zuzenbide Objektiboa da (gaztelaniaz, «derecho objetivo»), eta horrek Zuzenbidearen subjektuei (hau da, pertsoneri) ahalmen batzuk aintzat hartzen eta bermatzen dizkie; eskubide subjektiboak, hain zuzen ere (gaztelaniaz, «derecho subjetivo»).

Eskubide subjektiboek arauen babesak dute, baina arauen babesak ez du suposatzen beti eskubide subjektibo bat dagoenik. Adibidez, kontratuetan hirugarrenei (kontratuaren aldeak ez diren beste pertsoneri) ematen zaien babesak ez da eskubide subjektibo bat. Beraz, eskubide subjektiboa arauak ematen duen babesak baino zerbait gehiago da, ahalmen bat delako: eskubide subjektiboaren titularrak ahalmena du legeak aitortzen dion eskubidea egikaritzeko.

Zehatzago definituta, eskubide subjektiboa ordenamendu juridikoak pertsonari, komunitate juridikoaren kide aktiboa izateagatik, aitortzen dion boterea edo ahalmena da, eta pertsonari dagokio botere edo ahalmen horren eragiketa eta defentsa.

2. ERAKETA-ELEMENTUAK

2.1. Subjektua (titularra)

Eskubide subjektiboaren subjektua pertsona bat da, eskubideak suposatzen duen boterea edo ahalmena jasotzen duena, hain zuzen.

Eskubide subjektiboaren titularra pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa izan daiteke, baina subjektu partikular bat izango da (pertsona multzo bat ezin da eskubide bakar eta berdina baten titularra izan). Egia da pertsona multzo batek pertsona juridiko bat (sozietate bat) eratu dezakeela eta pertsona juridiko hori eskubide subjektiboen titularra izango dela (eraikuntza baten gaineko jabetza eskubidea, adibidez), baina pertsona juridiko zehatz hori da eskubidearen titularra, ez pertsona juridikoa osatzen duten pertsonak.

Adinez txikiak eskubide subjektiboen titularrak izan daitezke, baina eskubide horiek euren ordezkari legalek (gurasoek edo tutoreak) egikarrituko dituzte.

Desgaitasunen bat duten pertsonak eskubide subjektiboen titularrak dira, eta laguntza behar badute horiek egikaritzeko, dagokion kasuan, laguntza-neurrietan jasotakoa jarraituko da. Era berean, izapidezko zaintza, kuradoretza edo defendatzaile judiziala dagoen kasuetan, bakoitza eratu duen xedapen judizialak jasotakoa jarraituko da.

2.2. Objektua

Eskubide subjektiboak eragina du errealitate sozial batengan; hau da, eskubidearen titularrak eskubidea egikaritzen duenean, ondorioak sorraraziko ditu errealitate sozial horren gainean. Errealitate sozial hori eskubide subjektiboaren objektua da.

Errealitate hori era askotakoa izan daiteke adibidez:

- Jabego-eskubidean, errealitate hori izango da ondasun bat edo ondasun batzuk.
- Mailegu-kontratuan dagoen kreditu-eskubidean, errealitate hori zordunak hartzekodunari ordaindu behar dion diru kopurua da.

2.3. Edukia

Eskubide subjektiboaren edukiak bi alde ditu. Lehenik, alde aktiboa, eskubidearen titularrari dagokion ahalmen multzoa, hain zuzen.

Bestetik, alde pasiboa, hau da, eskubide subjektiboak kolektibitatearen kide guztiei jartzen dizkien mugak eta, kasu batzuetan, egin beharreko betebeharrak:

- Kide guztiek eskubide subjektiboak errespetatzeko behar orokorra dute (eskubideak ez kaltetzea).
- Kasu batzuetan, eskubidea babestua eta betea izan dadin, pertsona zehatz baten edo batzuen ekintza aktibo bat eskatuko du (eskubidearen titularra ez den pertsona batek betebeharrak bat betetzea);

adibidez, zordunak ordaindu egin behar du kreditu-eskubidea betetzeko.

3. ESKUBIDE SUBJEKTIBOAK LORTZEA ETA GALTZEA

3.1. Eskubide subjektiboak lortzea

a) Eskubide subjektiboaren jatorrizko lorpena:

Eskubide subjektiboa *ex novo* lortzen den lorpena da, hau da, eskubidea aurreko titular batengandik lortzen ez denean. Adibidez, inorena ez den gauza bat bereganatzen denean, gauza horren gaineko jabetza-eskubidea lortu daiteke aurreko titular batengandik jaso gabe.

b) Eskubide subjektiboaren eratorritako lorpena:

Eskubidea eskuratzen duen pertsonak aurreko titular batengandik jasotzen du eskubide hori. Eskubide subjektiboaren eratorritako lorpena kontratu baten bitartez edo oinordetzaren bidez gertatzen da. Adibidez, gauza baten gaineko jabetza lortzea salerosketa-kontratuaren bitartez.

Kontuan hartu beharreko oinarrizko printzipioak:

- Inork ezin du dituen eskubideak baino gehiago igorri. Adibidez, etxe bat alokatuta duenak ezin du etxe hori saldu; etxea erabiltzeko eskubidea badu ere (alokairu-kontratuaren bitartez), ez du etxearen jabetzarik eta ezin du saldu (ezin dio etxearen gaineko jabetza-eskubidea beste bati igorri).
- Aurreko titularraren eskubideak eskuratzaillearen eskubidea mugatzen du. Horren arabera, eskubidea jasotzen duenak eskubidea aurretik zituen karga, zerga eta hipotekekin jasoko du, aurreko titularrak zuen egoera berdinean. Adibidez, oraindik guztiz ordaindu barik dagoen autoa erosten duenak (ziurrenik, oso prezio onean egoera hori dela eta), autoaren jabetza-eskubideari lotuta dagoen maileguari aurre egin beharko dio, eta hartzekodunari zor zaion diru kopurua ordaindu beharko dio.

3.2. Eskubide subjektiboak galtzea

Eskubide subjektiboa arrazoi ezberdinengatik gal daiteke:

- Eskubidearen titularraren borondatez, eskubidea bertan behera uzten duelako (ondoren, beste pertsona batek eskubide horren jatorrizko lorpena egin dezake) edo beste pertsona bati igortzen diolako (eskubidearen eratorritako lorpena gertatzen da).
- Eskubidearen titularrak legearen aurkako ekintza bat egiten duenean, dagokion isuna ondasunak galtzea izan daiteke, hain zuzen, ondasun horien gaineko eskubideak galtzea.
- Eskubidea galtzea, gertaera natural bat dela medio edo borondaterik gabeko gertaera bat dela medio. Adibidez, uholde batzuen ondorioz ibai baten bidea aldatu egiten da, lur batzuk ur azpian gelditzen dira, eta, ondorioz, lur horien gaineko jabetza-eskubidea desagertu egiten da; pertsona bat hiltzen denean, pertsona horren nortasunari lotutako eskubideak desagertu egiten dira (ondare izaerako eskubideen kasuan, ordea, oinordetzaren bidez igorpena gertatuko da).
- Hirugarren baten ekintzagatik, horretarako eskubidea duenean. Adibidez, dohaintza bat dela medio ondasunen jabetza jaso duen pertsonak ondasun horien gaineko eskubideak galdu ditzake emailearen seme-alabak agertzen direnean (dohaintza atzera botatzen da, seme-alaben oinordetza-eskubidea babesteko).
- Eskubidearen objektua den gauza suntsitzen edo deuseztatzen denean, eskubidea galtzen da.

4. ESKUBIDE SUBJEKTIBO MOTAK

4.1. Eskubide subjektibo publikoak eta pribatuak

a) Eskubide subjektibo publikoak

Estatuaren edo beste entitate publikoen eta hiritarren arteko harremanetan agertzen dira. Zuzenbide Publikoak arautzen ditu; batzuetan, estatuarentzat edo beste entitate publikoentzat dira mesedegarriak (partikularrek ordaindu beharreko zergak batzea, adibidez), beste batzuetan hiritarrentzat

(hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea edo zerbitzu publikoak erabiltzea, adibidez).

b) Eskubide subjektibo pribatuak

Norbanakoen arteko harremanetan agertzen dira. Zuzenbide Pribatuak arautzen ditu.

Orokorrean, eskubide subjektiboek buruz hitz egiterakoan, eskubide subjektibo pribatuei buruz ari gara, baita hiritarrek estatuaren eta entitate publikoen aurrean dituzten eskubideei buruz ere (estatuak eta entitate publikoak, eskubideak baino gehiago, eskumenak dituzte).

4.2. Ondare-eskubide subjektiboak eta ondarez kanpokoak

a) Ondare-eskubideak

Pertsonaren helburu ekonomikoak aurrera eramateko helburua duten eskubideak: eskubide errealak eta kreditu-eskubideak.

b) Ondarez kanpoko eskubideak

Interes idealak bermatzen dituzten eskubideak, dirutan baloratu ezin diren interesak: pertsonalitatearen eskubideak eta familia-eskubideak. Hala ere, eskubide horiek kaltetuak badira, titularrak indemnizazio bat jaso dezake, eta hori dirutan egin daiteke.

4.3. Eskubide subjektibo absolutuak eta erlatiboak

a) Eskubide absolutuak

Komunitatearen kide guztiek errespetatu behar dituzten eskubideak dira: pertsonalitatearen eskubideak, eskubide errealak, eta abar.

Eskubide absolutua erasotua eta kaltetua bada, eskubidearen titularrak kaltea eragin duenaren aurka jo dezake, bide judiziala jarraituz.

b) Eskubide erlatiboak

Eskubide erlatiboek pertsona zehatz batzuentzat betebeharrak zehatzak ekartzen dituzte. Adibidez, hartzaileak duen eskubidea zordunak zor diona

ordaintzeko (zordunak zorra ordaindu behar du hartzaileak duen kreditu-eskubidea betetzeko).

4.4. Eskubide errealak eta kreditu-eskubideak

a) Eskubide errealak

Gauza baten gainean eskubidearen titularrak duen berehalako boterea suposatzen duten eskubide absolutuak dira. Adibidez, etxe baten jabetza.

b) Kreditu-eskubideak

Kreditu-eskubidearen titularrak beste pertsona baten portaera zehatza (aktiboa zein pasiboa) eska dezake. Eskubide erlatiboak dira. Adibidez, hartzaileak zordunari dagokion zorra ordaintzeko eskatzeko eskubidea du.

5. PERTSONALITATEAREN ESKUBIDEAK / GIZA ESKUBIDEAK

Pertsonalitatearen eskubideak gizakiaren goreneko eskubideak dira, bere gizaki izatearen adierazpena, eta gizakiaren nolakotasunen eta gaitasunen gozamina bermatzen dute. Pertsona fisikoaren funtsezko eskubideak eta askatasunak dira.

Espainiako Konstituzioak eskubide horiek jasotzen ditu, goreneko babesa ematen dielarik, nahiz eta eskubide bakoitzaren arauketa zehatza edo sakonagoa bestelako lege eta xedapenetan egiten den. Hala ere, Konstituzioak ez du eskubide horien zerrenda itxi bat jasotzen; funtsezko eskubide eta askatasunei buruzko arauak, ordea, Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren arabera interpretatuko direla aitortzen du, eta baita gai horren inguruan Espainiak sinatutako nazioarteko itunen arabera ere (Konst. 10.2 artikulua).

Konstituzioan jasotzen diren funtsezko eskubideak eta askatasunak, besteak beste:

- Bizitzarako eskubidea (Konst. 15. artikulua).
- Integritate fisikorako eta moralerako eskubidea (Konst. 15. artikulua).
- Norbanakoen eta komunitateen askatasun ideologiko eta erlijiosoa (Konst. 16. artikulua).

- Atxiloketa ilegala debekatzen da (Konst. 17. artikulua).
- Ohore-eskubidea, intimitaterako eskubidea (pertsonala eta familiakoa) eta irudi propiorako eskubidea (Konst. 18. artikulua).
- Bizilekua aukeratzeko eskubidea, estatuko lurraldetik zirkulatzeko askatasuna, estatuan sartu eta estatutik irteteko eskubidea (Konst. 19. artikulua).
- Adierazpen-askatasuna, produkzio-askatasuna (artistikoa, zientifikoa eta teknikoa), katedra-askatasuna, informazio-eskubidea; zentsura debekatzen da (Konst. 20. artikulua).
- Batzartzeko eskubidea (batzar baketsua eta armarik gabekoa) (Konst. 21. artikulua).
- Elkartzeko eskubidea (betiere legez kontrako helbururik ez badute, edo isilpekoak eta paramilitarrak ez badira) (Konst. 22. artikulua).
- Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo ordezkarien bitartez (Konst. 23. artikulua).
- Eskubideak egikaritzekoan, epaile eta auzitegien babesaren izateko eskubidea (Konst. 24. artikulua).
- Hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzarako askatasuna (Konst. 27. artikulua).
- Sindikatuak sortzeko eskubidea eta sindikatzeaskatasuna (Konst. 28. artikulua).

IX. ONDAREA. ONDASUNAK ETA GAUZAK

1. ONDAREA: KONTZEPTUA

Ondarea kontzeptu ekonomikoa eta juridikoa da:

- Ikuspuntu ekonomikotik, ondarea ondasun multzo bat da.
- Ikuspuntu juridikotik, ondarea pertsona batek duen eta ekonomikoki balora daitezkeen eskubide eta betebeharren multzoa da.

Ikuspuntu juridikoa garrantzitsuagoa izan daiteke. Horrela, ez da berdina etxe batez osatutako ondarea (ondarearen balioa etxearen balioa da) eta hipoteka bat jasaten duen etxe batez osatutako ondarea (ondarearen balioa etxearen balioari hipotekaren balioa kenduta lortutako kopurua da).

Ordenamendu juridikoak ondarea eskubide eta betebeharren multzo bezala aintzat hartzen du. Hori dela eta, bereiztu egin daitezke honako hauek:

- Ondare gordina (aktiboa + pasiboa): eskubide eta ondasunen balioari betebeharrak eta zergen balioa gehitzen zaio.
- Ondare garbia (aktiboa – pasiboa): eskubide eta ondasunen balioari betebeharrak eta zergen balioa kentzen zaio.

Ondarea eskubide eta betebeharren multzo bat denez, ordenamenduak ez du ondarearen igorpen bateratu bat baimentzen. Beraz, ondarearen titularrak ezin du ondarea batasun bat bezala erabili edo igorri, eta ondarea osatzen duten elementu bakoitzeko xedapenezko ekintza bat egin beharko du.

Era berean, Kode Zibilak ondare osoaren dohainezko igorpena debekatzen du. Emaileak dohaintza egiteko momentuan dituen ondasun guztiak eman ditzake, betiere berarentzat dagozkion baldintzetan bizitzeko beharrezkoa zaiona gordetzen badu, jabego edo usufuktu bezala (KZ 634. artikulua). Debekua dohaintzarako da bakarrik; beraz, ondarearen elementu guztiak sal daitezke kasu honetan ondarea mantentzen delako, edukiaren izaera aldatuta (ondasunak baino gehiago, dirua).

Bestalde, ezin da dohaintzan etorkizuneko ondasunik eman (KZ 635. artikulua).

2. ONDAREAREN FUNTZIOAK

a) Ondarea oinordetzaren oinarritzko elementua da.

Bizi den pertsona baten ondarea pertsona hiltzerakoan oinordekotza bihurtzen da, hildakoaren oinordekoei igorriko zaiena.

b) Ondarearen gain zordunaren erantzukizuna ezartzen da.

Hartzaileek euren eskubideen ariketa zordunaren ondarearen kontra zuzenduko dute.

d) Ondareak «subrogazio erreala» ahalbidetzen du.

Subrogazioak ondasun batzuk beste batzuek aldatzea suposatzen du, haien arteko lotura juridikoa dela eta. Adibidez, salerosketa batean, prezioaren diruak saldutako gauza ordezkatzeko du; aseguru baten indemnizazioak jasotako kaltea ordezkatzeko du.

3. ONDARE MOTAK

3.1. Ondare pertsonala

Pertsona batek (fisikoa edo juridikoa) duen ondarea. Ondare pertsonalak pertsonaren beharrak asetzen laguntzen du, eta hartzaile posibleen aurrean bermea da pertsonarentzat.

3.2. Ondare banandua

Pertsona bati dagokion ondare pertsonaletik banandurik dagoen ondasun multzoa da.

Ondare mota hau oinordetza-kasuetan agertzen da batez ere: pertsona batek oinordekotza bat jasotzen duenean, oinordekotza hori osatzen duten ondasun, eskubide eta betebeharrak zehaztu ditzake, berak aurretik zuen ondare pertsonaletik ezberdinduz eta hori babestuz (pertsona hori bi ondare ezberdinen titularra da: ondare pertsonala eta ondare banandua).

Oinordekotzan betebeharririk balego, hartzaileek ondare bananduaren aurka jo ahal izango dute bakarrik; ez, ordea, ondare pertsonalaren aurka.

3.3. Ondare kolektiboa

Ondare mota honen titularitatea pertsona ezberdin batzuei dagokie (bi pertsona gutxienez), eta horietako bakoitzak ondare pertsonala eduki dezake.

Adibidez, oinordetza-kasuetan, oinordeko bat baino gehiago dagoenean, oinordekotza banandu aurretik oinordeko guztiak dira oinordekotza osatzen duen ondarearen titularrak; beraz, oinordekoak ondare kolektibo baten titularrak dira. Ezkontzaren eraentza ekonomikoa irabazpidezkoa bada (*gananciales*), ezkontzaren ondoren lortutako ondasunek bi ezkontideen ondare kolektiboa osatzen dute.

3.4. Helburuzko ondarea

Helburuzko ondarea titularrik ez duen ondarea da, baina titularra izendatzeko prozesuan dago. Ondare honen gain kudeaketa-sistema bat ezartzen da, ondarea babestua izan dadin titularra agertzen den bitartean.

Adibidez, oinordetza-kasuetan, oinordekoek oinordekotza onartu ez duten bitartean, hildakoarena zen ondarea (oinordekotza) helburuzko ondarea da.

Ondare mota guztien adibideak aurkitu ditzakegu oinordetza-kasuetan:

- Oinordekoek oinordekotza onartu ez duten bitartean, hildakoarena zen ondarea (oinordekotza) helburuzko ondarea da.
- Oinordekoek oinordekotza onartzen dutenean eta banatzen ez duten bitartean, ondare kolektiboa dago (helburuzko ondarea ondare kolektibo bihurtzen da).
- Oinordekoek oinordekotzaren banaketa egiten dutenean, bakoitzak jasotzen duen ondasun eta eskubide multzoa bere ondasun pertsonalaren baitan sartzen da, ondare banandua zehazten ez badute.
- Azkenik, oinordekoak oinordekotzaz jasotako eskubide eta ondasun multzoa ondare banandu gisa zehazten badu, ondare banandu hori eta bere ondare pertsonala izango ditu.

4. ONDASUNAK ETA GAUZAK

4.1. Kontzeptua

Kode Zibilaren 333. artikulua araber, jabetu daitezkeen gauza guztiak ondasun higikorrek edo higiezinak dira. Animaliak ere jabetu daitezke, legeek adierazitako mugekin (KZ 333 bis artikuluan jasotzen dira oinarrizkoak).

Baina gauza ez da zertan entitate material bat izan. Kode Zibilaren araber, gauza izaera inpersonaleko edozein entitate da, materiala ala materiagabea, eta eskubide independente baten ondarezko menderapena suposatzen du.

Idea garrantzitsua da gauzak eskubide baten ondarezko menderapena suposatzen duela; hau da, gauza jabetu daiteke, jabe bat izan dezake. Oinarrizko ideia ez da gauza entitate material bat izatea; horregatik, gauza materiagabeen gain jabego-eskubidea egikaritu daiteke: jabego intelektuala, adibidez.

4.2. Ondasun higikorrek eta higiezinak

Kode Zibilak gauzen artean ondasun higikorrek eta ondasun higiezinak ezberdintzen ditu, eta arauketa ezberdina ezartzen du bakoitzarentzat.

a) Ondasun higiezinak (334. artikulua)

Ondasun higiezinak hauek dira:

- Bere izaeragatik edo batzeagatik: lurra/zorua eta zoruari batuta dagoena (eraikuntzak, lurrak, bideak, zuhaitzak eta landareak, ubideak, meategiak, eta abar).
- Helburuagatik: jabeak ondasun higiezin baten zerbitzuan jartzen dituen ondasun higikorrek edo, nahiz eta helburu hori ez izan, ondasun higiezinaren osagaiak direnak (estatuak, irudiak, margoak, makinak, dikeak, eta abar).
- Analogiagatik: ondasun higiezin bat objektu duten eskubideak (etxe baten gaineko jabego-eskubidea, adibidez).

Ondasun higiezin baten gaineko titulartasuna ez du bakarrik ondasunaren posesioak zehazten; Ondasun Higiezin Erregistroan beharrezkoa da inskripzioa. Horren arabera, pertsona bat ondasun higiezin baten jabe izateko edo ondasun higiezin baten gaineko eskubide baten titularra izateko, Erregistroan adierazi behar du.

b) Ondasun higikorrak (335. artikulua)

Ondasun higikorrak hauek dira:

- Bere izaeragatik: batetik bestera eraman daitezkeen ondasunak, betiere, ondasun higiezin bati loturik baleude, eta horren kalterik gabe egin badaiteke.
- Analogiagatik: ondasun higikor bat objektu duten eskubideak.
- Bazterketagatik: ondasun ez-materialak (autore-eskubideak) eta energia ez-materialak (elektrizitatea).

Ondasun higikorrak suntsikorrak (*fungibles*) ala ez-suntsikorrak (*no fungibles*) izan daitezke:

- Ondasun suntsikorrak dira beren izaerari dagokion erabilpena aurrera eramaterakoan kontsumitzen diren ondasunak (KZ 337. artikulua). Ondasun suntsikorra genero berdineko beste batek ordezkatu dezake; adibide nagusia dirua da.
- Beste ondasun guztiak ez-suntsikorrak dira, hau da, dagokien erabilpena aurrera eramateko orduan kontsumitzen ez diren ondasunak.

Ondasun higikor baten gaineko titulartasuna ondasunaren edukitzak zehazten du. Pertsona batek ondasun higikor bat badu, ondasun horren gaineko eskubide baten titularra dela suposatzen da: ondasunaren jabea da, alokatuta du, utzi diote, eta abar.

4.3. Fruituak

Kode Zibilaren 353. artikulua arabera, ondasunen gaineko jabetzak eskubidea ematen du ondasunen produktuen gainean, baita ondasunei berez nahiz modu artifizialean erantsitakoaren gainean ere.

Horrela, ondasun baten jabeari dagozkio ondasun horren fruitu naturalak, industrialak eta zibilak. Kode Zibilak lehenengo bien halako definizioa ematen du, eta fruitu zibilen kasuan, horien zerrenda bat (KZ 355. artikulua):

- Fruitu naturalak dira lurrak berez ematen dituen gaiak, bai eta animalien kumeak eta gainerako produktuak ere.
- Fruitu industrialak dira lanaren ondorioz edozein motatako lurrek ekoizten dituzten gaiak.
- Fruitu zibilak dira eraikinen alogera, lur-errentamenduen prezioa, eta errenten zenbatekoa.

Orokorrean, *fruitu* deitzen zaio gauza batek sortzen duenari, hau da, gauza batek duen hazkuntza, biderketa, gehikuntza, ordainsari edo etekin bati, betiere gauza horren substantzia aldatu edo gutxitu gabe gertatzen bada.

Kode Zibilaren sailkapenarekin jarraituz, fruitu motak honela bereiz daitezke:

- Fruitu naturalak naturaren berezko ekoizpenak dira. Alde batetik, lurraren produktu espontaneoak, hala nola basa-zuhaitzak, landareak eta zuhaitzen fruituak, baita gizakiak landatutakoak ere, behin landaketa eginda fruituak modu naturalean etortzen baitira, laborantzarik gabe. Bestetik, animalien produktuak; adibidez, artilea, ilea, esnea eta kumeak.
- Fruitu industrialak, nahiz eta izen hori izan, naturan gizakiaren lanaren ondorioz lortutakoak dira, hau da, nekazaritzaren eta abeltzantzaren ondorioz lortutakoak.
- Fruitu zibilak oinarri juridikoa duen gauzaren gaineko ekintzagatik edota erabileragatik etortutakoak dira. Oinarri juridikoaren ezaugarria dela eta, fruitu hauek legez soilik ekoizten direla adierazi ohi da (eta fruitu naturalak zein industrialak, berriz, mundu naturalean ekoizten direla). Laburki esanda, fruitu zibilak kontratuetatik datoz; errentamenduak, esaterako.

5. ESKUBIDE ERREALAK

Gauzaren gainean pertsonak izan ditzakeen eskubide horiei *eskubide errealak* deitzen zaie.

Eskubide errealak subjektuak gauzaren gainean duen botere zuzen eta berehalakoa da; botere hori osoa edo mugatua izan daiteke. Gainontzekoek botere hori errespetatu behar dute.

5.1. Eskubide erreal motak

a) Eskubide erreal osoa: jabetza

Jabetzak erabateko nagusitasuna ematen dio titularrari gauzaren gainean. Horren arabera, zuzenbideak jabeari baimentzen dio gauzaren gain erabilpen eta posibilitate guztiak gauzatzea.

Hala ere, batzuetan jabeak mugatua ikusten du gauzaren gain duen boterea, ahalmen zehatz bat (edo batzuk), jabearen eskuetan egon ordez, hirugarren batek izango duelako. Hirugarren hori eskubide erreal mugatu baten titularra litzateke.

Beraz, jabetzak, eskubide erreal osoa izan arren, ez du oztopatzen beste eskubide erreal mugatuak egotea gauza beraren gainean.

b) Eskubide erreal mugatuak

Eskubide erreal mugatuak gauzaren gain ahalmen zehatz bat izatea esan nahi du. Horrela, jabetza ez diren gainerako eskubide erreal guztiak mugatuak dira, gauza baten gaineko ahalmen guztiak ez baitituzte eskaintzen, soilik banaka batzuk.

Eskubide erreal mugatuak beste titular batenak diren gauzen gainean erabiltzen dira, hau da, gauzak badu jabea. Hiru mota daude:

- Gozatzeko eskubide errealak: jabearena den gauzaren ustiapena eta erabilpeneko ahalmenak ematen dizkiote eskubidearen titularrari.
- Bermatzeko eskubide errealak: kreditu bat ordainduko dela bermatzen dute. Kreditua ez bada ordaintzen, eskubide horren titularrak gauza saltzea eska dezake lortutako diruarekin kreditua ordaintzeko. Azken finean, diruzko betebeharraren baten bermea da.

- Eskuratzeko eskubide errealak: eskubidearen titularrak ahalmena du beste batena den gauza baten jabetza (edo gauzaren gaineko eskubide erreal bat) lehentasunez eskuratzeko.

5.2. Eskubide errealak eskuratzea

Kode Zibilaren 609. artikulua xedatzen du jabetza eta gainerako eskubide errealak nola eskuratzen diren. Bi eskuratze mota ezberdindu daitezke:

a) Eskubide errealen jatorrizko eskuratzea:

Eskubide errealak inoren parte-hartze edo lankidetzarik gabe eskuratzen da, aurreko titulartasunekin inongo lotura barik, eskubideak inoiz titularrak izan ez duelako edo gauzaren gaineko titulartasuna jadanik desagertu delako.

Jatorrizko eskuratze moduak:

- Besterik gabe eskubide baten sorrera: gizakiaren lanaz ondasun berri bat sortzea edo jarduera intelektualaz obra bat sortzea.
- Okupazioa: jaberik ez duten ondasunak atzematea.
- Usukapioa: preskripzioaren bidez, legeak ezarritako epe eta baldintzak betez. Gauzaren edukitza izan behar da publikoa (jabe gisa denon aurrean agertzea), baketsua (inork ez du gauza erreklamatu) eta etengabea. Ondasun higiezinaren kasuan, 10 urteko edukitza; ondasun higigarrien kasuan, 30 urteko edukitza.

b) Eskubide errealen eratorritako eskuratzea:

Eskuratze eratorrien bidez, eskubide errealak aurreko titularrarengandik eskuratzen da, hau da, eskubidea beste pertsona batek aurretiaz zuen eskubidean oinarritzen da. Horrela, eskuratutako eskubideak aurreko titularrarentzat zeuzkan zabalera eta murrizketa berberak izango ditu.

Eratorritako eskuratze moduak:

- Legearen bidez.
- Dohaintzaren bidez.
- Oinordetzaren bidez.
- Kontratuen bidez, *traditio* dagoenean, hau da, gauza ematen denean.

X. gaia. BETEBEHARRAK

1. BETEBEHARREN KONTZEPTUA

Kode Zibilaren 1088 artikulua arabera, betebeharra zerbait ematean, zerbait egitean edo zerbait ez egitean datza. Ekintza aktibo edo omisio hori prestazioa da.

Betebeharrean bi alde daude:

- Hartzekoduna: eskubide subjektibo baten titularra da, hain zuzen, kreditu-eskubidea. Eskubide honek hartzekoduna ahalduntzen du zordunari honek zor diona (prestazioa) eskatzeko. Zordunak betetzen ez badu, hartzekodunak zordunaren ondasunen aurka joateko aukera du.
- Zorduna: eginbehar juridiko bat bete behar du (zorra/prestazioa), eta ez betetzearen ondorioak jasan behar ditu.

2. BETEBEHARREN ITURRIAK

Betebeharrak sortzen dira honako iturri hauen bidez (KZ 1089. artikulua):

- Legea: bakarrik legeetan jasotako betebeharrak edo legeen aurkakoak ez direnak eska daitezke.
- Kontratuak: betebeharren iturri nagusia da; kontratuetatik sortutako betebeharrek lege-indarra dute kontratugileen artean.
- Kuasikontratuak: negozioen kudeaketa dela eta, betebeharrak sortu daitezke.
- Delituak eta faltak: kalte-galerak sorrarazten dituzte, eta horiek ordaintzea (indemnitazioa) betebeharrak bat da.
- Erru edo arduragabekeriak burututako egite edo ez-egiteak (kuasidelituak): kasu honetan ere, kalte-galerak ordaindu behar dira.
- Alde bakarreko aitortzea: borondate-aitortze bat adierazten duenak horrek dakarren betebeharra bete behar du onuradunak onartzen badu.
- Saria emango delako jendaurreko hitz-ematea: alde bakarreko aitortzea da berez; kasu horretan, eskatutako ekintza betetzen duenari saria emateko betebeharra sortzen da.

3. BETEBEHARREN SUBJEKTUAK

Betebeharrak bi subjektu edo bi alde eskatzen ditu: hartzekoduna eta zorduna. Edozein pertsona, fisikoa edo juridikoa, izan daiteke betebeharraren aldea.

Alde bakoitzean pertsona bat baino gehiago egon daiteke; hau da, hartzekodun batzuk edo zordun batzuk egon daitezke. Alde bien pertsonen aniztasunen arabera, hiru irudi ezberdintzen dira:

3.1. Mankomunitatea

Kreditu-eskubidea edo zorraren betetzea ezin da banatu.

- Mankomunitate aktiboa: betebeharraren prestazioaren betetzea hartzekodun guztiek batera eskatu behar dute.
- Mankomunitate pasiboa: betebeharraren prestazioa zordun guztiek bete behar dute.

3.2. Partziaritatea

Kreditu-eskubidea edo zorraren betetzea zati berdinetan banatuta dago.

- Partziaritate aktiboa:
Hartzekodun bat baino gehiago dago, eta kreditu-eskubidea hartzekodunen kopuru berdinetan zatiturik dago; hartzekodun bakoitzak dagokion kreditu-eskubide zatia eska dezake bakarrik; hau da, zordunak (edo zordunek) bakarrik egingo du hartzekodunari dagokion prestazio zatia.
- Partziaritate pasiboa:
Zordun bat baino gehiago dago eta zorraren betetzea zordunen kopuru berdinetan zatiturik dago; zordun bakoitza dagokion zorraren zatia betetzera beharturik dago bakarrik; hau da, hartzekodunak (edo hartzekodunek) bakarrik eska diezaioke zordunari dagokion prestazio zatia betetzea.

3.3. Solidaritatea

Solidaritatearen arabera, subjektuek era solidarioan eskatu edo bete behar dute prestazioa.

- Solidaritate aktiboa:

Hartzekodun bat baino gehiago dago, eta bakoitzak kreditu-eskubide osoa eska diezaioke zordunari; hau da, hartzekodun bakar batek eskatuz gero, zordunak prestazio osoa bete behar du.

- Solidaritate pasiboa:

Zordun bat baino gehiago dago, eta hartzekodunak zorraren betetzea zordun bakar bati eskatzen badio, horrek prestazio osoa bete beharko du (ondoren, beste zordunen aurka jo ahal izango du).

- Solidaritate mistoa:

Hartzekodun bat baino gehiago eta zordun bat baino gehiago daude, eta edozein hartzekodunek edozein zorduni betebeharra osorik betetzeko eska diezaioke.

Noiz gertatzen da kasu bakoitza?

Kode Zibilaren arabera (1137. eta 1138. artikulua), betebeharretan subjektuen aniztasuna badago (hartzekodun bat baino gehiago edo zordun bat baino gehiago), aldeek finkatutakoaren arabera egingo da arauketa. Aldeek ez badute ezer adierazi, partziaritatea gertatuko da. Beraz, solidaritatea (eta mankomunitatea) espresuki adieraziz gero soilik agertuko da.

4. BETEBEHARREN OBJEKTUA: PRESTAZIOA

Kode Zibilaren 1088. artikulua arabera, betebeharra zerbait ematean, zerbait egitean edo zerbait ez egitean datza. Ekintza edo omisio hori hartzekodunak eska dezakeen eta zordunak bete behar duen jokabidea da, eta betebeharraren objektua hau da: prestazioa.

Edozein kasutan, prestazioa honelakoa izan behar da: posiblea, zilegia eta zehaztua edo zehazgarria.

5. BETEBEHAR MOTAK

5.1. Emateko betebeharrak

Zordunak bete behar duen jokabidea hartzekodunari gauza bat ematea da. Gauza eman arte, zordunak gauza zaindu behar du, eta gauzak sortzen dituen fruituak hartzekodunari eman behar dizkio.

5.2. Egiteko betebeharrak

Zordunak hartzekodunaren mesedetarako jokabide bat eraman behar du aurrera. Zordunaren pertsona betebeharraren oinarria bada, pertsona horrek zehazki bete behar du prestazioa. Betebeharraren oinarria prestazioa bera bada, zordunak beste pertsona bat kontrata dezake prestazioa betetzeko.

5.3. Ez egiteko betebeharrak

Zordunak aurrera eraman behar duen jokabidea ezezkoa da: omisioa edo abstentzioa. Hau da, jokabide zehatz bat aurrera ez eramatea.

5.4. Diruzko betebeharrak

Kopuruzko zorra betebehar oso orokorra da. Zordunak betebeharrean adierazten den diru kopurua eman behar dio hartzekodunari.

5.5. Betebehar generikoak

Kasu batzuetan, zerbait emateko edo zerbait egiteko betebeharretan ez da zehazten prestaziorik; gauza edo jokabidearen generoa bakarrik aipatzen da. Betebeharra legezkoa da, baina zordunak prestazioa betetzeko eman behar duen gauza edo bete behar duen jokabidea zehaztu beharko da.

5.6. Hautabidezko edo aukerako betebeharrak

Betebehar hauetan prestazio batzuk identifikatzen dira, eta horien artean batak besteak baztertzen ditu. Zordunak prestazio bat aukeratuko du, eta betetzerakoan betebeharra guztiz bete dela ulertuko da.

6. BETEBEHARRAK BETETZEA

Betebeharra bukatzeko, zor den prestazioa bete behar da, eta hori ordainketaren bitartez egiten da. Hau da, ordainketaren bitartez zorduna betebeharrak askatzen da, eta hartzekodunak bere interesak asetzen ditu.

Zordunak eta hartzekodunak, dagokien kasuan, beharrezkoa den gaitasuna izan behar dute; beraz, betebeharra ez da beteko honako kasu hauetan:

- Zordunak ez badu prestazioa betetzeko beharrezkoa den gaitasunik.
- Edota hartzekodunak ez badu ordainketa jasotzeko gaitasunik (hala ere, bere ordezkari legalek ordainketa onar dezakete).

Betebeharraren ordainketa hirugarren pertsona batek egin dezake, zordunak jakinda edo jakin gabe (KZ 1158. artikulua). Zerbait egiteko betebeharratan, ordea, zorduna pertsona zehatz bat izan behar denean, pertsona zehatz horrek bete beharko du betebeharra.

Orokorrean, ordainketa hartzekodunari egin behar zaio; hala ere, gerta daiteke honelakoren bat (KZ 1162. artikulua):

- Hartzekodunak ordainketa baimendutako pertsonari egitea, hala nola, ordezkari legalei (gurasoak, tutorea) edo hartzekodunak izendatutako borondatezko ordezkari bati.
- Hartzekodunak ordainketa betebeharraren bi aldeek adostutako pertsonari ere egin diezaioke.

Ordainketak zorduna askatu dezan, burututako prestazioak betebeharrean ezarritakoaren berdina izan behar du:

- Emateko betebeharratan ezin da betebeharrean ezarrita ez dagoen gauza eman, nahiz eta balore berdina edo handia izan; zehazki agindutakoa eman behar da.

- Prestazioa osorik bete behar da, ezin da zatika bete; horrela, posible izateko espresuki adierazi behar da.

7. BETEBEHARRA EZ BETETZEA

Zordunak betebeharra betetzen du betebeharrak ezarritako jokabidea gauzatzen duenean, finkatutako epean eta zehaztutako baldintzen arabera. Kontrako zentzuan, betebeharra ez da betetzen:

- Prestazioa den jokabidea gauzatzen ez denean.
- Prestazioa gauzatzen bada ere, finkatutako epean gertatzen ez denean.
- Prestazioa osorik gauzatzen ez denean.
- Prestazioa gauzatzeak zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzenean.

Prestazioa gauzatzean atzerapena dagoenean (prestazioa gauzatzen da, baina finkatutako epea baino beranduago), betebeharra bete dela onar daiteke. Hala ere, zordunak hartzekodunari kalteak ordainduko dizkio bi baldintza gertatzen badira:

- Hartzekodunak zordunari prestazioa betetzeko agindua eman dio.
- Berandutzearen errua zordunarena da.

Zordunak jokabide zuzena izan badu eta berandutzearen arrazoia bere kontrolpetik kanpo badago, ez du erantzukizunik (adibidez, hartzekodunak tarta bat eskatzen du eguerdiko 13:00erako; zorduna atzeratu egin da, ordea, auto-istripu batek sortu duen trafiko-pilaketagatik).

Berdin jokutzen da gauza bat emateko prestazioetan gauza suntsitu edo galtzen denean. Egia da gauza desagertuta prestazioa ezin dela bete eta hartzekodunaren interesak ezin direla ase. Hala ere, zordunak jokabide zuzena izan badu eta gauza galtzearen edo suntsitzearen arrazoia bere kontrolpetik kanpo badago, zorduna betebeharretik aske gelditzen da (aurreko adibidean, zordunak errurik ez duen auto-istripuan tarta desagiten da).

Prestazioa betetzen ez den kasuetan, ez betetzearen arrazoia zordunaren errua dela frogatzen bada, zorduna erantzulea da eta kalte-galerak ordaindu beharko dizkio hartzekodunari. Kalte-galeren balioa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira hartzekodunak jasan duen kaltearen balioa eta jaso ez duen irabaziaren balioa.

XI. gaia. NEGOZIO JURIDIKOA

1. KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

Negozio juridikoa borondate pribatuzko adierazpen batez edo batzuez osatutako ekintza da. Borondate pribatuzko adierazpen horiek eragin juridiko zehatz bat lortzeari zuzenduta daude, eta ordenamendu juridikoak horiek negozio juridikoaren oinarri gisa aitortzen ditu.

Negozio juridikoa pertsonen harreman juridiko-pribatuen esparruan sortu eta garatzen da: saldu eta erosi, elkarte bat eratu, testamentua egin, etxe bat alokatu, eta abar.

Negozio juridikoak ezaugarri hauek ditu:

- Pertsonaren ekintza bat da.
- Borondate pribatuzko adierazpen batez (testamentua, dohaintza) edo batzuez osatuta egon behar da (kontratuak orokorrean).
- Ondorio juridiko bat sortzea du helburu (adibidez, elkarte bat eratzea, etxe bat alokatzea, ezkontzatik kanpo jaiotako seme-alaba bat aitortzea...).
- Ordenamendu juridikoa zaindu behar du (legez kanpoko ekintzak ez dira negozio juridikoak).
- Ordenamenduak kasu bakoitzean eskatzen dituen ezaugarriak bete behar ditu, ezaugarri formalak barne (adibidez, testamentua eskatutako forman egitea, hipoteka dokumentu publikoan eratzea, ondasun higiezin baten jabetza erregistratzea...).

2. NEGOZIO JURIDIKO MOTAK

2.1. Aldebakarreko, aldebiko eta aldeanitzeko negozioak

Borondate pribatuzko adierazpen batez (adibidez, testamentua), bi adierazpenez (adibidez, salerosketa) edo hainbat adierazpenez (adibidez, hiru bazkide edo gehiagoz osatutako sozietatea) osatutako negozio juridikoak.

2.2. *Inter vivos* eta *mortis causa* negozioak

Inter vivos negozio juridikoak bizirik dagoen pertsonaren harremanak arautzen ditu (adibidez, salerosketa).

Mortis causa negozioak, ordea, pertsonaren heriotza dela eta sortutako harremanak arautzen ditu (testamentua).

2.3. Kostu bidezko edo doako negozioak

Kostu bidezko negozio juridikoetan, betebeharrak daude parte-hartzaileen artean. Adibidez, salerosketan erosleak gauzaren truke prezioa ordaindu behar du, eta saltzaileak diruaren truke gauza eman behar du.

Doako negozio juridikoetan, betebeharrak alde batentzat bakarrik agertzen dira. Adibidez, dohaintzan emaileak gauza ematen dio hartzaileari, baina horrek ez du ezer egin behar.

2.4. Negozio solemneak eta ez-solemneak

Negozio juridiko solemneek formalitate zehatz bat eskatzen dute negozioak balio izan dezan (ezkontza, hipoteka, testamentua, eta abar).

Solemneak ez diren negozioetan ez da formalitate zehatzik eskatzen.

2.5. Xedapenezko negozioak eta negozio administratiboak

Xedapenezko negozio juridikoetan, eskubide subjektibo bat igortzen da, aldatzen da edo desagertzen da.

Administraziozko negozioetan, ondasun batzuk gorde eta defendatzen dira, baita kudeatu ere.

2.6. Negozio tipikoak eta atipikoak

Negozio juridiko tipikoak dira Kode Zibilak edo lege bereziek arautzen dituzten negozioak.

Negozio atipikoak, berriz, legezko arauketarik ez dutenak dira (adibidez, garaje-kontratua edo erakusketa-kontratua).

3. NEGOZIOAREN NAHITAEZKO ELEMENTUAK

3.1. Borondatearen adierazpena

Borondatearen adierazpenaren bitartez, pertsonak (negozio juridiko bat egiteko) duen barne-nahia kanporatzen du. Borondatearen adierazpena (eta, beraz, negozio juridikoa) baliozkoa izateko beharrezkoa da honako hau:

- Borondatea adierazten duen pertsonak horretarako gaitasuna izatea.
- Borondateak akatsik ez izatea.
- Borondatea kanpora adierazita egotea.
- Pertsonak duen nahia eta adierazten duen borondatea berdinak izatea.

Kode Zibilaren 1263. artikularen arabera, emantzipaturik gabeko adinez txikiek legeek baimentzen dituzten kontratuak egin ahal izango dituzte, baita beren adinei dagozkien ondasun eta zerbitzuen gaineko kontratuak ere, betiere gizarte-usadioen arabera (beste kasuetan, ordezkarien laguntza beharko dute). Adibidez, adinez txiki batek litxarrerriak eros ditzake gozoki-denda batean.

Negozia guztiz deuseza izango da gaitasun osoa falta bada. Gaitasuna badago baina ez osoa, negozioa deuseztagarria da. Adibidez, adinez txiki batek ziklomotor bat erosten badu, negozioa deuseza da (ez da existitzen) gazteak kontratuak egiteko gaitasunik ez duelako. 17 urteko gazte emantzipatua bada, ordea, negozioa deuseztagarria da (baliozta daiteke) eta gaitasuna osatzen dutenek (gurasoek edo gaztearen ordezkapena dutenek) kontratua atzera bota edo osatu dezakete.

Borondatea adierazten denean akatsik badago, negozioa deuseza edo deuseztagarria izan daiteke. Borondatearen akatsak honako hauek dira: okerra, dolua, beldurraraztea eta indarkeria (**kontratuei buruzko gaien azaltzen dira*).

3.2. Negozioaren objektua

Negozio juridikoa gauza edo zerbitzu bati zuzenduta dago, negozioaren objektua den gauza edo zerbitzuari.

Negozioaren objektua modu honetakoa izan behar da:

- posiblea (adibidez, ez da posible Ilargiaren salmenta edo alogera);
- zehaztua edo zehazgarria (etorkizuneko gauza izan daiteke);
- zilegia edo legezkoa (adibidez, heroina-salmenta legez kontrakoa da).

3.3. Negozioaren kausa (zergatia)

Teoria subjektiboaren arabera, negozio juridikoaren kausa borondatearen adierazpenaren zergati zehatza da. Horren arabera, pertsona bakoitzak negozioa egiteko arrazoi propioa izango du.

Kode Zibilak teoria objektiboa jarraitzen du; hau da, negozioaren kausa bere arrazoi ekonomiko-juridikoa da. Horren arabera:

- Kausarik ez badago, negozio juridiko deuseza da.
- Kausa zilegia ez bada, negozio juridiko deuseza da.
- Kausa faltsua bada, negozio juridiko deuseztagarria da.

3.4. Negozioaren forma

Kasu askotan, forma ez da negozio juridikoaren funtsezko elementua, eta, beraz, ez da forma zehatzik eskatzen negozioa baliozkoa izateko.

Negozio juridiko solemneen kasuan, ordea, forma bada negozioaren funtsezko elementua, eta Kode Zibilak (edo dagokion legeak) zehazten duen forma zehatza bete behar da, bestela negozioa deuseza izango da (**kontratuei buruzko gaien azaltzen da*).

XII. gaia. KONTRATUA: ARAUKETA OROKORRA

1. KONTRATUA: KONTZEPTUA

Kontratuaren kontzeptua definitzeko, kontuan hartu behar dira Kode Zibilaren zenbait artikuluko:

- 1254. artikulua arabera, kontratua badago pertsona bat edo gehiago gauza edota zerbitzu bat emate-betebeharra bere gain hartzeko prest dagoen momentutik.
- 1089. artikulua arabera, kontratua betebeharren iturrietako bat da.
- 1091. artikulua arabera, kontratuetatik sortutako betebeharrek lege-indarra dute aldean artean.

Kontratuaren hasierako kontzeptu bat emanez, esan daiteke kontratua aldean artean betebeharrak sortzen dituen borondate-adostasuna dela.

Zentzu hertsia, *kontratu* kontzeptuak ondare izaerako harreman juridikoetan eragiten duten negozio juridikoei egiten die erreferentzia. Honela:

- Kontratua ondare izaerako negozio juridikoa da.
- Orokorrean, aldebiko izaera du.
- Bere eragina da ondare izaerako harreman juridiko bat eratzea, moldatzea edo desegitea.

2. KONTRATU MOTAK

2.1. Adostasunezko kontratuak, kontratu errealak eta kontratu formalak

Adostasunezko kontratuetan, aldean adostasun hutsa nahikoa da kontratua egoteko.

Kontratu errealetan, aldean adostasunaz gain, gauza eman behar da kontratua egoteko, edo gauzaren gaineko eskubide erreal bat eratu, igorri, moldatu edo bukatu behar da.

Adostasunezko kontratuak eta kontratu errealak kontratu formalak ere badira, forma berezi bat eskatzen badute kontratua baliozkoa izateko (idazki publiko batean jasotzea, adibidez).

2.2. Aldebakarreko, aldebiko eta aldeanitzeko kontratuak

Kontratuan parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera, kontratuak aldebikoak edo aldeanitzekoak izan daitezke. Kontratuak eratzen dituen betebeharrak kontuan hartzen badira, ordea:

- Aldebakarreko kontratuetan betebeharrak alde batentzat bakarrik sortzen dira (adibidez, mailegua).
- Aldebiko (edo aldeanitzeko) kontratuetan betebeharrak bi aldeentzat (edo alde guztientzat) sortzen dira (adibidez, salerosketa).

2.3. Kostu bidezko eta doako kontratuak

Kostu bidezko kontratuetan, pertsona batek ondare izaerako abantaila galtzen du beste baten truke. Adibidez, salerosketan saltzaileak gauza galtzen du, baina dirua jasotzen du; erosleak dirua galtzen du, baina gauza jasotzen du.

Doako kontratuetan alde bat txirotu egiten da eta beste bat aberastu (adibidez, dohaintzan).

2.4. Kontratu tipikoak eta atipikoak

Kontratu tipikoak legez arauturik daudenak dira.

Kontratu atipikoek, ordea, ez dute legezko arauketarik (aldeek finkatutakoa jarraituz eratzen dira).

3. KONTRATUAREN OINARRIZKO OSAGIAK

Kode Zibilaren 1261. artikularen arabera, kontratua egoteko beharrezko osagaiak hauek dira:

- Kontratugileen adostasuna.
- Kontratuak objektu zehatz bat izatea.
- Ezartzen diren betebeharrak kausa edo zergati jakin bat izatea.
- Forma derrigorrezko osagaia da kontratu formaletan bakarrik.

3.1. Aldeen adostasuna

Kontratua baliozkoa izateko, kontratugileak ados egon behar dira kontratuari buruz. Bi aldeen (edo guztien) adostasuna beharrezkoa da, hau da, bien borondate edo nahi amankomuna; beraz, biek egindako adierazpenek gune batean soilik bat egiten badute, kontratugileak ados badaude, kontratua egongo da.

Negozioaren inguruan adierazi den bezala, Kode Zibilaren 1263. artikulua arabera, emantzipaturik gabeko adinez txikiek legeek baimentzen dituzten kontratuak egin ahal izango dituzte, baita beren adinei dagozkien ondasun eta zerbitzuen gaineko kontratuak ere, betiere gizarte-usadioen arabera (beste kasuetan, ordezkarien laguntza beharko dute).

Legeek debekuak ezarri edo gaitasunaren inguruko baldintza bereziak eska ditzakete (KZ 1264. artikulua).

3.2. Objektua

Kontratuaren objektu gauza eta zerbitzu guztiak izan daitezke, betiere, ahalezkoak (posibleak), zilegiak (legezkoak) eta zehatzak badira (KZ 1271., 1272. eta 1273. artikulua).

Etorkizuneko gauzak kontratuaren objektu ere izan daitezke. Etorkizuneko gauzak kontratua egiteko orduan existitzen ez diren gauzak dira, baina gertakizunen garapen normal bat dela medio existituko direnak. Adibidez, nekazari batek datorren urteko uzta sal dezake; abeltzain batek, oraindik jaio ez den txahala sal dezake.

Zilegitasunak suposatzen du gauza edo zerbitzua legezkoa izan behar dela. Gauzak ezin dira gizakien arteko merkatarizatik kanpo egon, eta zerbitzuak ezin dira legeen eta ohitura onen aurkakoak izan.

3.3. Kausa (zergatia)

Kontratuaren kausa da kontratugileek lortu nahi duten helburua edo asmoa. Kausarik gabeko kontratuak edo zilegia ez den kausa dutenek ez dute eraginik sortzen (KZ 1275. artikulua).

3.4. Forma

Kontratuak betebeharrekoak dira, horiek egiteko forma edozein izanik ere, baldin eta baliozkoak izateko oinarrizko baldintzak betetzen badituzte (KZ 1278. artikulua). Hala ere, kontratu batzuetan, kontratuak, baliozkoa izateko, forma zehatz bat bete behar du derrigorrez. Hori dela eta, bi kontzeptu bereizi behar dira:

- Forma *ad solemnitatem*: kontratu batzuetan, forma oinarrizko betekizuna da; beraz, forma hori betetzen ez bada, kontratua ez da legezkoa izango. Kontratu solemneak dira, eta horien kasuan forma derrigorrezko osagaia da (adostasun, objektu eta kariarekin batera).
- Forma *ad probationem*: beste kontratu guztietan, forma negozioren frogaz bezala eskatzen da. Kontratua baliozkoa da nahiz eta forma ez bete, baina kontratua frogatzeko orduan forma zehatzaz egingo da. Kasu horietan, forma ez da kontratuaren derrigorrezko osagaia.

Kode Zibilaren 1280. artikulua arabera, agiri publikoan agerrarazi beharko dira honako kontratu hauek:

- Ondasun higiezinaren gainean eskubide errealak sortu, eskualdatu, aldarazi edo iraungitzeko helburua dutenak.
- Ondasun horien gaineko errentamenduak sei urtekoak edo gehiagokoak badira, eta hirugarren bati kalte egiten badiote.
- Ezkontzako itunak eta horien aldaketak.
- Oinordetza-eskubideak edo ezkontzako sozietatearen eskubideak lagatzea edo horiei uko egitea.
- Ondoko ahalordeak (botere-ematea): ezkontzarako, auzietarako, ondasunak kudeatzeko, agiri publikoan idatzi behar den egintza guztietarako.
- Agiri publikoan jasotako akzio edo eskubideen lagatzea.

4. KONTRATUAREN OSAGAIK IZAN DITZAKETEN AKATSAK

4.1. Adostasunaren akatsak

Kode Zibilaren 1265. artikulua arabera, adostasunak izan ditzakeen akatsak dira okerra, doloa, beldurraraztea eta indarkeria.

a) Okerra

Okerra barne-borondateak eragiten duen errealitatearen irudipen faltsu bat da: okerra dela eta, kontratugileak, benetako errealitatea ezagutu izan balu, ez luke egingo egiten duena edo beste era batera egingo luke.

Okerrak kontratua deuseza bihurtzen du, ezaugarri hauek baditu:

- Okerra kontratuaren oinarritzko osagai bati buruzkoa izatea; horrela gertatzen da objektuaren substantziaren edo kalitatearen gaineko okerra agertzen denean, kontratuaren arrazoia denean, baita pertsonaren gaineko okerra agertzen denean, pertsona kontratuaren arrazoia denean (KZ 1266. artikulua).
- Okerra jasaten duen kontratugileak jarrera arretatsu batez okerra ezagutzeko aukera ez izatea (okerra ezagutzeko aukera bazuen, okerra jasan beharko du). Negozioaren gaineko okerra (zerbait saldu egin dela dirudi, baina benetan alokatu egin da) arlo honetan sartzen da: okerra jasan duenak jarrera arretatsu batekin okerraz jabetzeko aukera bazuen, negozioa badago.

b) Indarkeria (KZ 1267. artikulua)

Indarkeria dago, kontratugilearen adostasuna lortzeko haren aurka indar jarkiezina erabiltzen denean.

Indarkeria badago, kontratua deuseza da bi kasu hauetan:

- Indarkeria absolutua denean (kontratu bat sinatzea, beste batek eskua hartu eta sinarazi egiten dizulako).
- Indarkeria psikikoa denean (kontratua sinatzen duzu, jipoi bat jaso eta gero).

d) Beldurraraztea (KZ 1267. artikulua)

Beldurraraztearen bidez, kontratugile bati bere pertsonak edo ondasunek edo bere ezkontide, ondorengo edo aurrekoen pertsonak edo ondasunek berehalako kalte larria jasoko duten beldurra eragiten zaio. Kontratugileak horrelako mehatxu larria jasotzen duenean, kontratua deuseza bihurtzea eska dezake, kontratua deuseztagarria delako.

e) Doloa (KZ 1269. artikulua)

Doloa dago kontratugile baten hitzek edo maltzurkeriek beste kontratugilea kontratua egitera bultzatzen dutenean; hau da, hitz edo maltzurkeria horiek gabe, bigarren kontratugileak ez zukeen kontraturik egingo.

Kontratua doloa egon delako egin bada, kontratua deuseztagarria da: kontratuak behin-behineko balioa du, doloa jasan duen kontratugileak kontratuaren deusezatasuna eska dezakeelako.

4.2. Kausaren akatsak

Kausarik ez duen kontratua guztiz deuseza da.

Kausa faltsua duen kontratua deuseza da. Salbuespen bat dago, zeren eta kausa faltsua beste egiazko kausa zilegi batean oinarritzen bada, kontratua legezkoa izango baita.

Kontratuaren kausa legeen edo moralaren aurkakoa bada, kontratua deuseza da.

5. KONTRATUAREN ERAKETA

5.1. Eskaintza eta onarpena

Kode Zibilaren 1262. artikulua arabera, kontratua eratzeko bide normala eskaintza eta onarpena dira.

- Eskaintzaren bidez, pertsona batek borondate-adierazpen bat egiten dio beste bati (edo batzuei), kontratu bat egiteko proposamena eginez.
- Onarpenaren bidez, onartzailea eta eskaintzailea (kontratuaren bi aldeak) beharturik gelditzen dira, eta kontratua eraturik legoke.

Onarpena egin aurretik, eskaintzaileak eskaintza atzera bota dezake. Eskaintzailea onarpenaren aurretik hiltzen bada, ezin da eskaintza onartu eta ez dago kontraturik.

Onartzaileak onarpena atzera bota dezake, eskaintzaileak onarpenaren berri izan aurretik.

5.2. Aldez aurretiko tratuak

Orokorrean kontratuak berehalako eraketa du, hau da, alde batek besteak egiten dion eskaintza onartzen du kontratua sortuz.

Kontratu konplexuetan, ordea, normala da aldez aurretiko tratuak egotea. Tratu horien bidez aldeek nolako kontratua nahi duten eta euren ideiak eta asmoak adierazten dituzte.

Aldez aurretiko tratuak egiten badituzte ere, aldeek kontratua egiteko askatasuna dute; hau da, nahiz eta tratu horiek sinatu, aldeek ez dute derrigorrez kontratua egin behar. Horrela, printzipioz, aldez aurretiko tratuek ez dute aldeentzat inolako betebeharririk sortzen.

5.3. Aurrekontratua

Kasu batzuetan, aldez aurretiko tratuen eta behin betiko kontratuaren artean aurrekontratuaren figura agertzen da (edo kontratuaren promesa).

Aurrekontratua egiten denean, jadanik aldeen artean kontratuaren harremanak sortzen dira. Baina, alde batek edo biek kontratuaren indarrean sartzea geroko momentu baterako uzten dute, eta momentu hori heldu arte ez dago bien artean inolako eskubide edo betebeharririk.

6. KONTRATUAREN ERAGINKORTASUNA

Kode Zibilaren 1258. artikulua arabera, kontratuak kontratugileak behartzen ditu zehazki kontratuan itundu dena betetzera.

Kontratu bat egiten denean, gainerako pertsona guztiek kontratua errespetatzeko betebeharririk orokorra dute; horren arabera, pertsona batek kontratu bat eraturik dagoela jakinda, ezin du kontratu horren aldeetako batekin kontratu horrekin bat ez datorren beste kontratu bat egin.

6.1. Hirugarren baten aldeko kontratua

Kode Zibilaren 1257. artikulua arabera, kontratuak hirugarren pertsona baten aldeko klausularen bat izanez gero, hirugarrenak klausula horren betetzea

eska dezake, klausula hori ezeztatua izan aurretik eta betiere behartua jakinarazi izan bada.

Kontratu mota horretan, hirugarren pertsona baten alde kontratu osoa izan daiteke edo bakarrik kontratuaren zati bat (kontratuaren klausula batean edo batzuetan jasota).

Hirugarren baten aldeko kontratuan, pertsona hauek agertzen dira:

- Hizpaketagilea: kontratugileetako bat da, hirugarrenaren aldeko betebeharra kontratuan ezartzea eskatzen duena.
- Hitz-emailea: beste kontratugilea, zeinek hirugarrenaren aldeko betebeharra bete behar baitu.
- Hirugarrena: kontratuan ezartzen den betebeharraren onuraduna da, nahiz eta ez den kontratuko aldea (ez da kontratugilea).

6.2. Hirugarren bat kaltetzen duen kontratua

Kontratu bat egiterakoan, kontratugileek hirugarren pertsona bati kalte bat eragin diezaioke. Kaltea eskubide subjektibo baten bortxaketa da. Adibidez, abeslari batek diskoetxe batekin kontratu bat sinatzen du, eta bere abestien eskusiba diskoetxe horri ematen dio; geroago, ordea, beste diskoetxe batekin disko bat grabatzen du, aurreko diskoetxeari kalte bat eraginez.

Kalte eragiten duen kontratugilea aurreko kontratua ez betetzeagatik (eta aurreko kontratu horren beste kontratugileari kaltea eragitearen) erantzule da, eta, ondorioz, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

6.3. Hirugarren baten esku geratzen den kontratua

Kontratu honen bidez, kontratugile batek (hitz-emaileak) hirugarren pertsona batek beste kontratugilearentzat prestazio bat egingo duela, zerbitzu bat egingo duela edo zerbait egingo ez duela promesa ematen du.

Hitz-emaileak egindako promesa ez betetzea bi kasutan gerta daiteke:

- Hirugarrenak beharra egitea onartzen ez badu hitz-emailea izango da erantzule, eta beste kontratugileari jasandako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio.

- Hirugarrenak beharra beteko duela onartzen badu eta azkenik betetzen ez badu, hirugarrena izango da erantzule.

7. KONTRATUAREN ERAGINGABETASUNA

7.1. Kontratuaren deuseztasuna

Deuseza den kontratuak ez du inolako eragin juridikorik sortzen, berez, existitzen ez delako ez baitu inolako baliorik.

Kontratua deuseza izango da kasu hauetan:

- Lege, moral edo ordena publikoaren aurkakoa bada.
- Oinarrizko osagaien baten falta badu.
- Aldeen adostasuna okerraz edo indarkeriaz gertatu bada.
- Kontratuak karirik ez badu edo karia faltsua bada edo legezkoa ez bada.

Kontratua deuseza dela auzitegiek adieraziko dute (adierazpen soila da, kontratua berez deuseza delako) kontratugileek eskatuta.

7.2. Kontratuaren deuseztagarritasuna

Kontratua deuseztagarria denean, kontratuaren efektuak zabaldu egiten dira, eta horrela mantenduko da deuseztapenaren adierazpen judiziala agertzen ez den bitartean. Beraz, kontratua guztiz baliozkoa da, baina bere efektuak behin-behinekoak dira.

Kontratugile batek, horretarako arrazoia izanik, kontratuaren deuseztasuna eska dezake; eta epaileak kontratua deuseza dela adierazten badu, kontratuak bere balioa galtzen du (eta ordurarte emandako efektuak desagertu egiten dira), kontratua existitu izan ez balitz bezala.

Kontratua deuseztagarria izango da kasu hauetan:

- Doloa edo beldurraraztea badago; kasu horretan, doloa edo beldurraraztea jasan duen kontratugileak deuseztasuna eska dezake.
- Kontratugile batek gaitasun osoa ez badu; kasu horretan, deuseztasuna beste kontratugileak eska dezake, baita ezgaituaren ordezkari legalek ere.

Bestalde, kontratu deuseztagarrien kasuan ez da derrigorrez deuseztasuna eskatu behar, kontratuaren onespena egin baitaiteke, kontratua guztiz baliozkoa izango delarik behin betiko.

7.3. Kontratuaren hutsaltzea

Kontratu hutsalkorra baliozkoa den kontratua da, hau da, eragin juridikoak zabaltzen dituena. Baina kontratu horrek hirugarren pertsona bati kalte bat eragiten dio, eta pertsona horrek kaltea konpontzeko duen konponbide bakarra aurreko kontratu hori desegitea da, hau da, kontratua hutsaltzea eskatzea.

Kasu horretan, epaileak kontratuaren hutsaltzea onartzen badu, kontratua desagertu egiten da momentu horretatik aurrera. Ildo horretan:

- Hutsalketatik aurrera kontratuak ez du eraginik sortzen.
- Baina ordurarte sortutako eragin juridiko guztiak mantendu egiten dira (horrek ezberdintzen ditu kontratu hutsalkorrak eta deuseztagarriak).

XIII. gaia. KONTRATU MOTEN IKUSPEGI OROKORRA

1. SALEROSKETA

Kode Zibilaren 1445-1537 artikuluetan arautzen da. 1445. artikulua arabera, salerosketa-kontratuaren bidez, kontratuaren alde batek bere gain hartzen du gauza zehatz bat emateko betebeharra, eta beste aldeak gauza horren truke prezio ziurra ordaintzeko betebeharra bereganatzen du.

Adostasunezko kontratu bat da. Horren arabera, kontratua aldeek euren adostasuna adierazten duten momentutik existitzen da, nahiz eta gauza eta prezioa oraindik ez eman. Hala ere, alde bakoitzak gauza edo prezioa eskatzeko eskubidea du momentu horretatik aurrera.

Salerosketaren elementuak honako hauek dira:

- Subjektuak: salerosketak bi alde ditu beti, eroslea eta saltzailea.
- Gauza: zehatza edo zehazgarria (posiblea) eta zilegia izan behar da; etorkizuneko gauzak salerosketaren objektu izan daitezke.
- Prezioa: dirutan ezarriko da; prezioa ez da zertan zehaztu kontratua egiten den momentuan, baina aldeek geroko momentu batean prezioa zehazteko modua finkatu behar dute.

1.2. Saltzailearen betebeharrak

Saltzailearen betebeharrak nagusia gauza ematea da (KZ 1468. artikulua):

- Gauza kontratua egiten den unean zegoen egoeran eman behar du.
- Gauzak ematen dituen fruitu guztiak eroslearenak izango dira kontratua gauzatu zen egunetik aurrera.

Saltzaileak ez du gauza eman behar, erosleak prezioa ordaindu ez badio edo kontratuan ordainketarako epe bat finkatu ez bada.

Saltzailea gauzaren jabe izan behar da gauza saldu ahal izateko, edo gauza saltzeko legezko titulua izan behar du (adibidez, jabeak baimena ematen dio gauza saltzeko, etxeen salmentan gertatzen den bezala).

Saltzaileak gauza inolako karga eta akatsik gabe saldu behar du.

Hori dela eta, saltzailea *saneamendua* deiturikoa egitera behartuta dago, bi kasu hauetan (KZ 1474. artikulua):

- Saldutako gauzaren legezko edukitza eta baketsua bermatu ez duenean, egoera hori bermatzeko egin beharrekoak egin beharko ditu.
- Salerosketa egin eta gero gauzan ezkutuko akatsak edo kargak agertzen badira, akatsak konpondu eta kargak ordaindu beharko ditu.

1.3. Eroslearen betebeharrak

Erosleak gauzaren prezioa ordaindu beharko du, kontratuan finkatzen den epean eta lekuan. Ez bada ezer zehazten, prezioa gauza ematen den unean eta lekuan ordainduko du (KZ 1500. artikulua).

Erosleak interesak ordaindu beharko ditu (KZ 1501. artikulua):

- Bi aldeek horrela adostu dutenean, prezioaren ordainketa akordio bidez atzeratu den kasurako.
- Gauzak fruituak edo errentak ematen baditu.
- Berandutza gertatzen denean, hau da, erosleak ezarritako epean ordaintzen ez duenean.

2. TRUKEA

Truke-kontratuaren bitartez, kontratuaren alde batek gauza bat emateko betebeharra bere gain hartzen du beste aldeak emango duen gauza bat jasotzeko (KZ 1538. artikulua).

Ikusten denez, salerosketaren antzeko kontratua da, baina gauza baten ordeztu prezio bat ordaindu beharrean, beste gauza bat ematen da; hau da, gauzen gaineko jabetza-eskubideak eskualdatzen dira. Logikoa denez, bi gauzak ezaugarri eta, bereziki, balio berdintsukoak izan behar dira.

Alde batek egiaztatzen badu eman zaion gauza ez dela eman duen pertsonarena, ezin da behartu hark trukean eskaini zuena ematera; nahikoa izango du jasotakoa itzultzearekin (KZ 1539. artikulua).

Kontratuaren arauketa zehatzaz aparte (KZ 1538-1540 artikulua), salerosketaren araudia baliozkoa da trukearentzat (KZ 1541. artikulua).

3. DOHAINTZA

Dohaintza eskuzabaltasunezko egintza da; horren bitartez, pertsona batek gauza baten doako xedapena egiten du hirugarren baten alde, eta horrek onartu egiten du (KZ 618. artikulua). Sinpleago adierazita, dohaintza-kontratuaren bitartez, pertsona batek gauza bat ematen dio beste pertsona bati, zeinak dohaintza onartzen baitu.

3.1. Aldeek izan behar duten gaitasuna

Emailleak, dohaintza egiteko, kontratatzeko gaitasuna eta gauza xedatzeko ahalmena izan behar ditu (KZ 624. artikulua).

Dohaintzak onartu ditzakete legez ezgaituta ez dauden guztiek (KZ 625. artikulua).

Jaio ez direnei egindako dohaintzak jaiotzerakoan beren ordezkari legalak izango direnek onar ditzakete (KZ 627. artikulua).

3.2. Dohaintzaren objektua

Dohaintza ondasun higikorrena ala higiezinena izan daiteke:

- Ondasun higikor baten dohaintza ahoz edo idatziz egin daiteke. Ahoz egiten bada, beharrezkoa da gauza aldi berean ematea (KZ 632. artikulua).
- Ondasun higiezin baten dohaintza baliozkoa izan dadin, idazki publikoan egin behar da, gauzaren balioa eta izan ditzakeen kargak zehaztuz, hartzaileak ordaindu beharko dituenak, hain zuzen (KZ 633. artikulua). Onarpena dokumentu berean edo beste idazki publikoan egin daiteke, baina beti emailea bizirik dagoen bitartean.

Dohaintzaren objektu emailearen gauza bat, batzuk edo ondasun guztiak izan daitezke. Azken kasu horretan, emaileak berarentzat dagozkion baldintzetan bizitzeko beharrezkoa zaiona gorde beharko du (KZ 634. artikulua).

Etorkizuneko gauzak ezin dira dohaintzaren objektu izan; horien artean daude emaileak dohaintzaren unean xedatu ezin dituenak, hau da, emaileak ez dituenak (KZ 634. artikulua).

Inork ezin izango du dohaintza bidez eman edo jaso, testamentuz eman edo jaso dezakeena baino gehiago (KZ 636. artikulua), emailearen oinordekoen eskubideak babestu behar baitira.

3.3. Dohaintza baliogabetzea

Orokorrean, dohaintza atzera botaezina da. Emaileak dohaintza baliogabetu dezake, ordea, kasu zehatz batzuetan:

- Dohaintza emaileak, bere seme-alabek edo ondorengoek baliogabetu dezakete, emaileak dohaintza egin eta gero seme-alabak dituelako edo dohaintza egiterakoan hiltzat ematen zuen seme-alaba bizirik dagoelako (KZ 644. eta 646. artikulua).
- Dohaintza baldintzatu egin bada eta hartzaileak emaileak jarritako baldintzak betetzen ez baditu, emaileak dohaintza baliogabetu dezake (KZ 647. artikulua).
- Hartzaileak emailearen kontra deliturik eginez gero, emaileak dohaintza baliogabetu dezake (KZ 648. artikulua).

4. AKURA/ALOKAIRU/ERRENTAMENDU KONTRATUA

Akuratze-kontratuan kontratugileetako batek beste bati gauza baten gozamina edo erabilpena emateko betebeharra bere gain hartzen du, epe jakin baterako eta prezio zurrean (KZ 1543. artikulua). Ikusten denez, epea eta prezioa kontratuaren funtsezko ezaugarriak dira.

4.1. Subjektuen betebeharrak

Kontratu mota honetan aldeak bi dira: alde batetik, akuratzaille/alokatzaile/errentatzailea, eta, bestetik, maizterra.

- a) Akuratzaille/alokatzaile/errentatzailearen betebeharrak (KZ 1554. artikulua):
 - Kasu gehienetan gauzaren jabea da, eta gauzaren edukitza eta gozamina uzten dizkio beste kontratugileari.

- Akura/alokairu/errentamenduak irauten duen bitartean, akuratzailleak gauzari beharrezko konponketak egin beharko dizkio.
- Gauzaren gozatze baketsua bermatu behar du.

b) Maizterraren betebeharrak (1553. artikulua):

- Gauza jaso eta dagokion prezioa ordaindu behar du.
- Gauza diligentziaz eta kontratuan finkatutako helbururako erabili behar du.
- Kontratuan finkatutako epea bukatzen denean, gauza itzuli egin behar du, gauza jaso zuen modu berean. Bere erruz gauzak galerak baditu, horien erantzulea maizterra bera da.

Errentatzaileak edo maizterrak ez baditu dagozkion betebeharrak betetzen, beste kontratugileak kontratuaren hutsaltzea eska dezake, baita kalte-galeren ordainketa ere (KZ 1556. artikulua).

4.2. Objektua

Ezin dira izan akura-/alokairu-/errentamendu-kontratuaren objektu erabileraren erabileraz kontsumitzen diren ondasun suntsikorak (KZ 1545. artikulua).

Objektua zilegia eta zehatza izan behar da; hau da, kontratuaren objektu den gauza eta gozamina zilegiak eta zehatzak izan behar dira. Gauzaren gaineko eskubideak ere kontratuaren objektu izan daitezke (etxe bat alokatzen denean, ez da jabetza xedatzen baina bai etxea erabiltzeko eskubidea).

4.3. Prezioa

Maizterrak kontratuan finkatutako prezioa ordaindu behar du kontratuan zehaztutako epean. Prezioa ez da zertan dirutan zehaztu, nahiz eta erarik normalena hori izan (adibidez, lur batzuk alokatzeagatik lur horien fruitu batzuk ordaindu daitezke, eta ez dirua; era berean, maizterrak errentatzailearen onuran jarduera bat aurrera eraman dezake prezio gisa).

4.4. Denbora

Akura/alokairu/errentamendua epe baterako kontratua da, eta finkatutako data heltzen denean, kontratua bukatu egiten da.

Salbuespen garrantzitsu bat dago: finkatutako epea bukatzen denean, maizterrak akuratzailerekin oniritziarekin hamabost egunez alokatutako gauzaren edukitzarekin jarraitzen badu, kontratua berritzen dela ulertzen da baldintza berdinetan, denbora salbu:

- Hirietako akurapenetan: luzapena urtebeterako, hilabete baterako edo egun baterako izango da, prezioaren ordainketa noiz egiten denaren arabera (KZ. 1577. artikulua).
- Landa-akurapenetan: luzapena uztaldi batekoa da (KZ 1581. artikulua).

5. OBRA- ETA ZERBITZU-KONTRATUAK

Berez, Kode Zibilak «obren edo zerbitzuen errentamendu» kontratuari buruz hitz egiten du. Kontratu mota horretan, aldeetako batek bere gain hartzen du, prezio jakin baten truke, beste aldearentzako obra bat egiteko betebeharra edo zerbitzu bat egiteko betebeharra (KZ 1544. artikulua).

Kode Zibilaren arauketak (1588-1603 artikulua) obra-kontratuari buruz dihardu, bereziki kontratu horren adibide diren kontratak edo eraikinak egiteko lanen kontratuei buruz.

Kode Zibilak duen zerbitzu-kontratuei buruzko arauketa, ordea, oso urria eta zaharkitua denez, arauketa zehatzak onartu dira arlo ezberdinetan.

5.1. Obra-kontratua

Obra-kontratuan, aldeen interes nagusia jardueraren emaitza da, hau da, obra edo lana bera. Jarduera aurrera eramango duen pertsonaren identitatea, ordea, ez da oinarritzakoa.

Obra-kontratuan, aldeak kontratista eta komisio-emailea dira:

- Kontrartistak kontratuan adostutako eran gauzatu behar du obra, prezio baten truke, eta obra bukatzerakoan komisio-emailearen eskura jarri behar du.

- Komisio-emailea obra egitea kontratatzen duen aldea da. Prezioa ordaindu behar dio kontratistari, horrek obra ematen duenean, kontrakoa adosten ez bada. Obra hartu behar du, baina, aurretik, onartu egin behar du.

5.2. Zerbitzu-kontratua

Zerbitzu-kontratuan, aldeek zehazki nahi dutena da pertsona zehatz batek (aldeetako bat edo hirugarren bat izan daiteke) jarduera jakin bat gauzatzea. Ondorioz, zerbitzu-kontratuetan oinarritzko elementuak hauek dira:

- Jarduera bera.
- Jarduera hori aurrera eramango duen pertsona.

Kontratu honen adibide dira, orokorrean, lan-kontratuak eta, bereziki, profesional autonomoen zerbitzuen kontratazioa (abokatuak, ingeniariak, arkitektoak, medikuen zerbitzuak, garbiketa-lanak, segurtasuna eta edozein motatako ekintza ekonomikoak).

6. MANDATUA

Mandatu-kontratuaren bidez, pertsona batek (mandataria), beste baten kontura edo enkarguz (mandatugilea), bere gain hartzen du zerbitzu edo gauzaren bat egiteko betebeharra (KZ 1709. artikulua):

- Mandatugilea enkargua egiten duen pertsona da, bere onurarako zerbitzu edo jarduera bat eskatzen duena.
- Mandatariak mandatugilearentzat egin behar edo kudeaketa batzuk egiten ditu: zerbait erostea edo saltzea, langile bat kontratatzea, ondasun batzuk kudeatzea, eta abar.

Mandatura doako kontratua da, kontrako akordiorik ez badago (KZ 1711. artikulua). Beraz, mandatugileak prezio bat ordaindu beharko dio mandatariari, soilik bi aldeek horrela finkatu dutenean (ez badute ezer adostu, zerbitzua edo jarduera debalde egiten da). Hala ere, mandatariaren lana (profesioa) mandatuan adierazitako zerbitzuak edo jarduerak egitea bada, mandatugileak ordainketa egin behar duela sumatzen da.

Mandatu-kontratuen eta zerbitzu-kontratuen arteko ezberdintasunak:

- Mandatu-kontratua doakoa da; zerbitzu-kontratuetan, berriz, beharrezkoa da prezioa ordaintzea; egia da, ordea, prezioa ordaintzea adosten denean kontratu berdintsuen aurrean gaudela.
- Mandatu-kontratuaren objektua egintza juridikoak beste baten izenean aurrera eramatea izan ohi da; zerbitzu-kontratuan, ordea, objektua beste mota bateko zerbitzuak dira.
- Mandatu-kontratuan ordezkagarritasun ezaugarria dago, hau da, mandataria mandatugileak aurrera eraman dezakeen egintzaz arduratzen da, mandatugileak eskatuta; zerbitzu-kontratuetan, ordea, zerbitzua kontratatzen duenak egintza hori bere kabuz ezin duelako egin kontratatzen du.
- Mandatu-kontratuan hiru-aldeko harremana dago, pertsona bat (mandataria) beste baten kontura (mandatugilea) aritzen baita hirugarrenen aurrean; zerbitzu-kontratuetan bi pertsonen arteko harremana dago (zerbitzua kontratatzen duena eta zerbitzua aurrera eramaten duena).

7. SOZIETATE-KONTRATUA

Sozietate-kontratuaren bidez, pertsona bik edo gehiagok dirua, ondasunak edo industria elkarrekin jartzen dituzte, irabaziak euren artean banatzeko asmoz (KZ 1665. artikulua).

Sozietate-kontratuak bi ezaugarri nagusi ditu:

- Pertsona: pertsona da kontratuaren oinarritzko osagarria; kontratugile bakoitzak pertsona zehatzarekin egiten du kontratua, ez beste inorekin.
- Irabazi-asmoa: sozietatearen helburua irabaziak lortzea da, bazkideen artean banatzeko. Kontratuan ezer adierazten ez bada, irabaziak eta galerak proportzionalki banatuko dira bazkideen artean (bakoitzak sozietatea eratzeko eman duenaren arabera), baina aldeek beste banaketa modu bat itundu dezakete.

7.1. Sozietate motak

a) Sozietate unibertsala, bi motatakoa izan daiteke:

- Kideen oraingo ondasunen gaineko sozietatea: bazkideek momentuan dituzten ondasun guztiak jabetza komunean jartzen dituzte, baita ondasun horiekin eskuratzen dituzten irabazi guztiak ere (KZ 1673. eta 1674. artikulua).
- Irabazien gaineko sozietatea: sozietatearen barruan kokatuko dira bazkideek euren industriaren edo lanaren ondorioz eskuratzen duten guztia, baina bazkide bakoitzaren ondasunak bereak izaten jarraitzen dute (KZ 1675. artikulua).
- Sozietate unibertsala eratzen bada eta ez bada zein motatakoa den zehazten, irabazien gaineko sozietatea dela ulertuko da (KZ 1676. artikulua).
- Sozietate unibertsala negozio edo enpresa txikiak martxan jartzeko eredia da (enpresa handiak Merkataritza Kodeak araututako sozietatearen bidez eratzen dira).

b) Banakako sozietatea:

- Banakako sozietatearen objektu gauza zehatzak dira, horien erabilera edo fruituak; edo enpresa jakin bat; edo lanbide jakin bat (KZ 1678. artikulua).
- Banakako sozietatea profesional autonomoek jarraitzen duten eredia da.

7.2. Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

a) Bazkideen betebeharrak

- Bazkideak sozietateari zor dio bertara ekarriko duela hitzeman duen guztia. Ekarritako gauzak ezkutuko kargak baditu, saneamendua egin behar du (KZ 1681. artikulua).
- Sozietatearen kudeaketa nola egingo den bazkideek adostuko dute (KZ 1692.-1695. artikulua):
 - o Bazkide guztien artean egin daiteke.
 - o Hautatutako bazkide edo bazkideen esku utz daiteke.
 - o Bazkideek sozietatearen kudeaketa hirugarren baten esku uztea adostu dezakete.

b) Bazkideen eskubideak

- Bazkideek sozietateak dituen irabaziak bananduko dituzte, adostutakoaren arabera; galerak baditu, gauza bera.
- Ez bada zehaztu banaketa, bazkide bakoitzak sozietatera egindako ekarpenaren arabera zehaztuko da (KZ 1689. artikulua).

d) Sozietatearen erantzukizuna (KZ 1698. artikulua)

- Sozietatea hirugarrenen aurrean berenganatutako zorren erantzule da.
- Sozietateak nortasun juridikoa badu, bazkideen banakako erantzukizuna subsidiarioa da (sozietateak erantzuten ez duenean, bazkideak erantzule izango dira).
- Sozietateak nortasun juridikorik ez badu, bazkide bakoitza erantzule izango da, egin duen ekarpenaren arabera.

7.3. Sozietatea iraungitzea

Sozietatea iraungitzeko arrazoiak honako hauek dira (KZ 1700. artikulua):

- Sozietatea epe baterako eratu bada, epea agortzen denean. Hala ere, epea luza daiteke bazkide guztiak ados agertzen badira (KZ 1702. artikulua).
- Sozietatearen objektu den gauza galtzen denean edo sozietatearen helburu den negozioa amaitzen denean.
- Bazkide baten heriotza (horrelakoak ez duela sozietatearen iraungitzea ekarriko itundu daiteke).
- Bazkide baten borondatez, sozietatea epe baterako eratu ez denean.

8. MAILEGUA

Mailegu-kontratuaren barnean bi figura ezberdin agertzen dira (KZ 1740. artikulua): alde batetik, komodatua, eta, bestetik, mailegu hutsa edo kontsumo-mailegua.

8.1. Komodatua

Alde batek beste aldeari suntsikorra ez den gauza bat ematen dio, hau da, kontsumitzen edo desegiten ez den gauza bat (janaria, dirua, eta abar ez direnak) epe jakin baterako, gauza erabil dezan eta ondoren gauza itzul dezan.

Komodatua doako kontratua da, hau da, gauza erabiltzen duen pertsonak ez dio jabeari inongo preziorik ordainduko (KZ 1740. artikulua). Ordainketarik badago, kontratuak komodatua izateari utziko dio.

Aldeen eskubideak eta betebeharrak:

a) Komodatuduna da gauza jaso eta erabiltzen duen pertsona:

- Gauza erabiltzeko eskubidea du, baina ezin ditu berenganatu gauzaren fruituak (KZ 1741. artikulua).
- Gauza zaintzeko beharrezko gastuak egin behar ditu (KZ 1743. artikulua).
- Gauza utzi zen helbururako ez beste baterako erabiltzen badu, edo finkatutakoa baino epe luzeagoan, gauza galtzearen erantzule izango da (KZ 1744. artikulua).
- Erabiltze hutsagatik gauzak izan ditzakeen hondatzeen erantzule ez da izango (KZ 1745. artikulua).

b) Komodatugilea gauza uzten duen pertsona da:

- Gauzaren gaineko jabetza-erantzule eskubidea mantentzen du (KZ 1741. artikulua).
- Ezin du utzitako gauza erreklamatu, gauza utzi zenean adostutako erabilera egin arte; hala ere, gauzaren premiazko beharra badu, eska dezake.
- Gauza erabiltzen duen pertsonari gauza zaintzeak eragindako gastuak ordaindu behar dizkio, betiere alde aurretik jakinarazi badio eta premiazkoak ez badira.

8.2. Mailegu hutsa (edo kontsumo-mailegua)

Alde batek (hartzekoduna) besteari (jasotzailea) dirua edo suntsigarria den beste gauza bat ematen dio.

Jasotzailea diruaren edo gauzaren jabe bihurtzen da, eta finkatutako epean hartzekodunari espezie edo kalitate bereko beste horrenbeste itzuli behar dio (KZ 1753. artikulua).

Mailegua doako kontratua izan daiteke, edo kontratugileek interesak ordaindu behar direla adostu dezakete (KZ 1740. artikulua); beraz:

- Interesak ordaindu behar dira aldeek espresuki adostu dutenean bakarrik (KZ 1755. artikulua).
- Jasotzaileak interesak ordaintzen baditu, horrelakorik behar ez denean, ezin ditu gero erreklamatu (KZ 1756. artikulua).

9. GORDAILUA

Gordailuaren bidez kontratuaren alde batek (gordailuzainak) beste pertsona baten eskutik (gordailugilea) gauza bat jasotzen du, gauza hori gordetzeko eta dagokion epean itzultzeko (KZ 1758. artikulua). Gordailuaren objektu ondasun higikorak izan daitezke bakarrik (KZ 1761. artikulua).

Kontratu hori doakoa da; hau da, gordailuzainak ez du ez dirurik ezta beste abantailarik ere jasotzen printzipioz, baina aldeek prezio bat finkatu dezakete horrela erabakitzen badute (KZ 1760. artikulua).

Aldeen betebeharrak:

- Gordailuzainak gauza gorde eta zaindu behar du; ezin du gauza erabili (KZ 1766. eta 1767. artikulua).
- Gordailugileak gordailuzainari gauza zaintzeko egin dituen gastuak ordaindu behar dizkio (KZ 1779. artikulua).

Gordailugileak gordailuzainari gauza erabiltzeko baimena espresuki ematen badio, kontratuak gordailu izateari uzten dio eta mailegu edo komodatu bihurtzen da (KZ 1768. artikulua).

10. FIDANTZA

Fidantzaren bidez pertsona bat hirugarren baten zorraren edo eginbeharraren berme bihurtzen da. Hau da, fidatzaileak ordaintzeko edo betetzeko betebeharra bere gain hartzen du hirugarren pertsona horren orde, azken horrek ordaintzen ez badu edo betebeharrekoa betetzen ez badu (KZ 1822. artikulua).

Fidantza etorkizuneko zorren berme gisa egin daiteke, hau da, oraindik kopurua ezaguna ez duten zorren berme gisa; kasu horretan, fidatzaileari ezin zaio ordainketa eskatu, zorra likidoa izan arte (KZ 1825. artikulua).

Fidantza ez da sumatzen, espresuki adierazita egon behar da (KZ 1827. artikulua).

Fidatzaileak ez du ordaindu behar, zordunak zorrari aurre egiteko ondasunak dituen bitartean (KZ 1830. artikulua). Horretarako, hartzekodunak fidatzaileari ordainketa eskatzen dionean, fidatzaileak hartzekodunari zordunaren zein ondasunen aurka jo behar duen adierazi behar dio (KZ 1832. artikulua).

Zordun baten zor beragatik fidatzaile bat baino gehiago badago, zorra fidatzaileen artean banatzen da; hartzekodunak fidatzaile bakoitzari dagokion zatiaren ordainketa eska diezaioke bakarrik, espresuki solidaritatea adostu ez bada (KZ 1837. artikulua).

Azkenean fidatzaileak ordaintzen badu, zordunaren aurka jo dezake ordaindutakoa berreskuratzen. Zordunak fidatzaileari honako hauek ordaindu beharko dizkio (KZ 1838. artikulua):

- Zorraren kopuru osoa.
- Interesak ordainketa egin denetik.
- Fidatzaileak egin behar izan dituen gastuak.
- Kalte-galerak.

Eranskina

Oinarrizko legedia

Espainiako Konstituzioa

- UPV/EHUko *Legeak-Leyes bilduma* webgunean jasotako testua (gaztelaniaz eta euskaraz):

<https://www.ehu.es/documents/2660428/2799934/Legeak01.pdf>

Kode Zibila

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) prestatutako testua (gaztelaniaz eta euskaraz):

https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_e_zuz_zibila/eu_def/adjuntos/Zuzenbide%20zibila/Kode_Zibila.pdf

- 2023an eguneratutako testua (soilik gaztelaniaz):

<https://www.boe.es/buscar/pdf/1889/BOE-A-1889-4763-consolidado.pdf>

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko legea

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2015/07/1502950e.pdf>

Legeak eta arauak kontsulta daitezke UPV/EHUko *Legeak-Leyes bilduman*:

<https://www.ehu.es/es/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

Kontsultarako materialak

A) Landutako edukiak sakontzeko, UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenen web-orrialdean dauden dokumentuak kontsulta daitezke (adi argitaratzearen urteari, gai batzuk eguneratzeke egongo baitira):

- Beriain Flores, Irantzu (2013): *Kontratuen teoria orokorra eta kontratuak banan-banan*.

<https://ikasmaterialak.ehu.es/zuzenbidea/kontratuen-teoria-orokorra>

- Imaz Zubiaur, Leire (2009): *Eskubide Errealak*.

<https://ikasmaterialak.ehu.es/zuzenbidea/eskubide-errealak>

- Imaz Zubiaur, Leire (2013): *Zuzenbide Zibilaren Sarrera. Eskubide Subjektiboa. Pertsonaren zuzenbidea*.

<https://ikasmaterialak.ehu.es/zuzenbidea/zuzenbide-zibilaren-sarrera>

- Imaz Zubiaur, Leire (2014): *Euskal Zuzenbide Zibila II*.
<https://ikasmaterialak.ehu.eus/zuzenbidea/euskal-zuzenbide-zibila-ii>
- Karrera Egialde, Mikel (2009): *Ondasun zuzenbidea*.
<https://ikasmaterialak.ehu.eus/zuzenbidea/ondasun-zuzenbidea>
- Viteri Zubia, Ibon (2011): *Zuzenbide zibila I*.
<https://ikasmaterialak.ehu.eus/zuzenbidea/zuzenbide-zibila-i>
- Viteri Zubia, Ibon (2011): *Zuzenbide zibila III (Betebeharren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra)*.
<https://ikasmaterialak.ehu.eus/zuzenbidea/zuzenbide-zibila-iii>
- Viteri Zubia, Ibon (2011): *Enpresa Zuzenbidea*.
<https://ikasmaterialak.ehu.eus/ekonomia-enpresa/enpresa-zuzenbidea>

B) EHUko Argitalpen Zerbitzuak gaiaren inguruan euskaraz argitaratutako liburuak:

- Alberdi Larizgoitia, Xabier; Azkarate Villar, Miren; Ezeiza Ramos, Joseba; Imaz Zubiaur, Leire; Ordeñana Gezuraga, Ixusko (koordinatzaileak) (2019):
Hiztegi Juridikoa.
- Villafáñez Pérez, Itziar (zuzendaria); García Álvarez, Belén; Larrazabal Astigarraga, Eider; Sagasti Aurrekoetxea, Josu; Zurimendi Isla, Aitor (2015):
Enpresaren zuzenbiderako sarrera. Eskemak.
- Imaz Zubiaur, Leire (zuzendaria); Atxutegi Gutierrez, Jon (koordinatzailea); Alkorta Idiakez, Itziar; Arakistain Arriola, Maitena; Beriain Flores, Irantzu; Briones Aramendi, Izaro; Landa Reza, Idoia; Rodríguez Elorrieta, Naiara; Sagarzazu Izeta, Iñaki (2023):
Zuzenbide zibila. Sarrera, eskubide subjektiboa eta pertsonaren zuzenbidea.